

Arrasate

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko urriaren 31 / 648. zenbakia



zoririk ez

Imre Kertész
URTZI URRUTIKOETXEAK ITZULIA

JOKIN ZAITEGI LEHIAKETA

AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak iazko
Literaturako Nobel sarituaren liburu bat euskaratu dute

ORAIN ETA HEMEN: EMAKUMEENDAKO BEKA/8 • KIROLA: ZALDIBARKO TXAPELKETA ABIAN/10



GOIENAN HERRIZ HERRI: ARRASATE

Inazio Lakuntza, Arrasateko alkatearekin berbetan

Martitzenean, azaroaren 4an
20:30ean

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea

Parte hartzeko telefonoa:
943 71 23 93

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

GOIENAN HERRIZ HERRI
Babeslea:

ARKA UZ

KALEINKESTA/ Zentsurie bueltan dala pentsetan jatzu?




KONTXI ARRUABARRENA
Etxekoandrie

Baietz esango neuke. Frankon denporan moduen hasi die batzuk. PP alderdikuek euskaldune dan edozeren kontra egitten daue; bai musika kontuetan, baitte zinien be...



JON LOITI
Langillie

Bueltan etorri baiño gehixau, aspaldi dau hamen: alderdi politiko bat ilegalizaute; modu baten pentsetiagaittik terrorista... Azkena izen da Euskal Herriko musika taldiek salaketie.



JUAN TOTORIKA
Langillie

Baietz esango neuke, baiñe disfrazate dauen zentsurie da. Argi dau Euskal Herriren adierazpen askatasun kontuek nahiko txarto dauzela. Zergaittik? Daukogun gobernuagaittik.



NEKANE LOPEZ
Langabie

Zentsurie? Frankon denporak datoz! Ikusi besterik ez dau: ezin leike pentsetan dana esan, ezin leike euskeraz esan... Batzuk pentsetan daue zentsuretako eskubide osue daukiela.



JESSICA VELASCO
Ikaslie

Bai, esango neuke kontu batzuetan badauela zentsurie. Argi dau jentiek ez daukola pentsetan dauena argi eta garbi esateko aukerie, eta hori jente gaztiekin pasetan da sarri.



ENEKO AZKARATE
Langillie

Bai, zentsurie barriro be dator bueltan. Zergaittik? Ezin dogulako pentsetan dogune esan. Adibide argiek die *Egunkaria*-kin pasau zana edo *Berria*-kin pasetan dabillena...

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK PASEALEKUA, LOKAZTUTA Zabaleta inguruan, Musakolan, oinezkoak pasatzeko egin duten lur azpiko pasabidean lokatz mordoia pilatu da. Hala salatu dute irakurle batzuek, eta arazo hori aditzera emateko eskatu digute. Egunero lagun asko ibiltzen dira bide horretan, eta lokatzaz gainera, txakur kakak ere egoten direla jakinarazi digute. Dagokionari arazoa konpon dezala eskatzen diote.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KIROLA /11

KULTURA /14

Mozio ugari osoko bilkuran

Mozio ugari eztabaidatu eta onartu zituzten astelehenean egindako osoko bilkuran.

Liga txapelketa hasiera ona

Arrasate Errugbi Taldeak ezin hobeto hasi du liga txapelketa: 72-0 irabazi zioten Getxori.

Euskarazko eskaintza

Euskara Sailak, Euskaini adierazlearen bitartez, euskarazko eskaintza publikoa aztertu du.

ASTEKO DATUA

%56

DA EUSKARAZKO ESKAITZA PUBLIKOA

Udaleko Euskara Sailak Euskaini adierazlearen bitartez egindako ikerketaren arabera, Arrasateko euskarazko eskaintza publikoa %56koa da. Euskararen ezagutza ere %56koa da.

BESTEKEESANA

“(Ipurtargia) saio intimista izango da eta sentimenduak nagusituko dira. Gauero elkarrizketak egingo ditugu eta gaeuz lanean aritzen direnekin harremanetan jarriko gara. Bestetik, atzerrian dauden euskaldunekin hitz egingo dugu (...). Gauero *Little Arratia Club* izeneko tartearrekin hasiko gara. Bertako tabernara deituko dugu eta zutabe ironikoa egingo dute honako lagunek: **Diego Martiartu, Paddy Rekalde, Sonia Gonzalez eta Goizalde Landabaso**. *Little Arratia Club* itsas adarraren ondoan dagoen taberna zahar bat da eta gauero deitzen dugunean ironiaz beteriko hitzak entzungo ditugu (...). Ez da teknikeririk egongo. Autokontrolan ni neuri ariko naiz, beraz, bakar-bakarrik. Erroka handia izango da niretzat.

KAITTIN ALLENDE
'BERRIA'/03-10-28

HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



*Metro bat,
txanpon bat,
tiro bat*

Metro bat. Bi. Hiru. Lau... Distantzia handitzen den gizartean zaude. Urruntasuna hurbil gelditzen den eremuan. Handia txiki den lekuan. Luzea labur den espazioan, eta “nahikoa!” gehiago den munduan. Mugak gaintzera doan trenera igo zara, abiadura azkarrean, bizkor, gero eta bizkorrago... eta oztupoak gaintitu nahi dituzu kateak hautsi asmotan, zinez, hankara lotua duzun katea, luzatzen ari bada ere; atzera, atzera, atzera... noizbait bertatik askatzea ezinezkoa egingo den arte. Eta zein luzera du bada Amalurrak?

Txanpon bat. Bi. Hiru. Lau... Dena, ezer ez den gizartean zaude. Aberastasuna txiropa den eremuan. Askok gutxi den espazioan, eta “nahikoa!” gehiago den munduan. Dena erosi, dena xahutu, dena hartu, dena zeurea den paradisuaz zaude... baina dena ezta deus. Gehiago nahi baduzu... dena

eta gehiago. Eta zenbat balio du bada gizakiak?

Tiro bat. Bi. Hiru. Lau... urrutira iristeko, dena izateko, gutxi duenari kentzeko, lurraren luze-zabala zeure egiteko, diru guztia zuk izateko, zu zeu izateko... justizia, mugagabeko garape-

“Dena dirutan ordaindu nahi den munduan bizi zara, non armek guztiaren jabe eta zapaltzaile egingo zaituzten”

na, kapitala, askatasuna, zikoizkeria, bakea, inperioa, handinahikeria, zientzia, egia, indarkeria, berdintasuna, teknologia, armak... Zu eta dena, dena eta zu, dena zuk, zuk dena... lau, hiru, bi, bat... dena zuk, baina

oraindik ez zara ezer.

Dena dirutan ordaindu nahi den munduan bizi zara. Guztiaren balioa txanponek neurtzen duten horretan. Diruak armaz josiko zaituen lekuan, non armek guztiaren jabe eta zapaltzaile egingo zaituzten.

Eta Seattle buruzagi indiarrak argi galdegin zigun aspaldi... *Nork eros edo sal dezake Zerua, edo Lurraren beroa?* Hau da gure erantzuna?

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berebizar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 31**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 1**
Amezua, Santa Marina 32. 943 79 09 74
- DOMEKA, 2**
Zabala-Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 3**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 4**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 5**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUENA, 6**
Azkoaga, Iturriotz. 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 7**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1. 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Joan parrokia | San Andres eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza | Santa Teresa eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia | Santa Marinako eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Jaiagun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

'LAS PUNKIS TAMBIÉN LLORAN'
Gaur, egubakoitza, Detritus Teatrus taldeak *Las punkis también lloran* antzezlan eskainiko du Emakume Txokoan, 19:00etan.

'LA PELOTA VASCA'
Eguenean, azaroaren 6an, *La pelota vasca* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean. Egun gehiagotan emango dute film hori: zapatuan, 19:00etan eta 22:00etan; eta domekan eta astelehenean, 19:00etan. Hiru euro kostatuko da.

'MUNDUKO BERTSOLARIAK'
Egubakoitzean, azaroaren 7an; Jon Sarasuak eta Gillermo Velazquez eta Xichú mendilerroko lehoiek emanaldia egingo dute Amaia Udal Antzokian. 22:30ean izango da.

1953KO KINTOAK
Azaroaren 15ean, 1953an jaiotako gizonezkoek eta emakumezkoek ospakizuna egingo dute. 12:30ean, San Juan Bautista elizan meza egingo dute; 13:30ean, talde argazkia aterako dute Monterronen eta txikiteoa egingo dute. Bazkaria Musakola hostalean egingo dute. Informazio zabalagoa honako telefono zenbakira deituta: 605 77 58 19 (Jose Antonio Ezkurra).

AEDren AGENDA

ZAHAR BERRI
Zahar Berrin euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak behar dituzte elkarri euskara praktikatzen laguntzeko. Jo AEDra izena ematera.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berria egunkariaren akzioak oraindik salgai daude AEDn. Jo AEDra bulego orduetan, goizez eta arratsaldez.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Goikobalu eta Beethovenen 9. sinfonia, herrian

Kontzertu beroa eta ederra eskaini zuten Goikobalu abesbatzak eta Ukrainako Kiev-eko irrati-telebistaren orkestrak, Octav Calleya zuzendari errumaniarraren batutaren gidaritzapean. Eszenatokian 210 lagun ibili ziren, kantari eta jotzaileen artean, lau ahots solista barne.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kukulumixto"



1. Hotzak, beldurrak... kukilduta, kuxkurtuta.
—Mutiko hori kukulumixto dao.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 25	-1°C
MAXIMOA Martitzena, 28	16°C
ASTEKO EURIA (l/m ²)	58,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 22	16°C	7°C	23,4 l/m ²
Eguena, 23	12°C	5°C	9,8 l/m ²
Egubakoitza, 24	12°C	6°C	0,6 l/m ²
Zapatua, 25	12°C	-1°C	2,8 l/m ²
Domeka, 26	11°C	7°C	4,3 l/m ²
Astelehena, 27	12°C	8°C	4,1 l/m ²
Martitzena, 28	16°C	9°C	13,5 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Ruper Ordorika azken diskoarekin

Zapatu eta domeka goizean Ruper Ordorikari egindako elkarrizketa errepikatuko dugu. *Kantuok jartzen ditut* izena du oñatiarraren disko berriak, eta horren aurkezpena egitera etorri zaigu Arrasate Irratira.

Era berean, Jose Ramon Beloki diputatuak Debagoieneko garraio publikoa dela-eta eman zizkigun argibideak berriro entzungai izango dira. Era berean, Olatz Lazkano biologo arrasatearrarekin egindako elkarrizketa ere eskainiko dugu.

Aspaldi heriotzak zuen zentzuaz

Domu Santu eguna dela eta, Julen Madariagari egin diogu elkarrizketa. Oñatin hiletak zein zentzu zuten ikertu zuen Madariagak 1700. urtetik abiatuta. Bazkariak egiten zituzten norbait hiltzen zenean, eta heriotzak beste zentzu bat zuen. Zapatu eta domeka goizean entzuteko aukera egongo da. Bestalde, goizeko hamarretan, astean albiste izan direnak labur-labur jasoko ditugu Nerea Zubiete kazetariaren eskutik.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: J.R. Beloki diputatua; Ruper Ordorika musikaria; Juan Madariaga ikerlaria; Olatz Lazkano biologoa...
- DOMEKA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia: Albisteak eta elkarrizketa.
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera magazina: efermerideak, elkarrizketak, kirolak, abokatu, dietista...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:06 Igo autobusera magazina: sukaldeak, literatura, musika, kontu-kontari, hileko galdera...
11:30 Arrasate Irratiko albistegia.
11:40 Igo autobusera magazina: sarreren zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunekin osatutako musika tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra.

ASTEABIHITZETAN

Arrasateko errepideak ez dira txarrenak

Hori dio, behintzat, *Berria* egunkariak Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta egin duen ikerketak. Azterketa horren arabera, hego Euskal Herrian 341 errepide zati arriskutsu daude.

Gipuzkoan 105 dira arrisku handia duten errepide zatiak. Horietako bi Debagoienetik igarotzen dira, baina ez daude Arrasaten: Bergara eta Urretxu arteko errepide zatia da lehena eta Eskoriatza eta Gatzaga artekoa bigarrena.

Anbulatorioko aparkalekua, negargarri

Anbulatorio ondoan dagoen aparkalekua gero eta egoera tamalgarrigoan dago. Egunotan botatako euriak, gainera, arazoa okertu egin du.

Orain dela bi urte sortu ziren Arrasateko anbulatorio ondoko aparkalekuan lehenengo arazoak. Orduan, Zerrajerako etxebizitzetarako azpiegiturak egiten hasi ziren eta aparkalekuko zati bat itxi egin zuten. Orain, baina, orduan gelditu zen aparkaleku zatiaren egoera askoz txarragoa da.

Arrasateko Belenzaleen Elkarte

Azken bi urteotan, Gabonetan, Arrasateko talde batek belena jarri izan du. Lehenengo urtean Santa Barbara parkean egin zuten belena; iaz, berriz, Laubiden jarri zuten. Belen horrek izan duen arrakasta ikusita, Arrasateko Belenzaleen Elkarte sortzea erabaki dute.

Belena egiterako orduan, Mondragoetik Donostiaraino joan ziren, hango belenzaleen elkarteekin egon ziren-eta. Belena egiteko ez dute aparteko materialik erabiltzen, baina txukuna egiten dute. Guztia, baina, ez da positiboa, bi urte horietan zenbat lotsabako hura apurtzen ahalagindu dira-eta. Hori jaitzuta ere, aurtengo Gabonetan berdin-berdin jarriko dute belena.



Aldai hilerria zabalik Domu Santu egunean

Bihar Domu Santu eguna izango da. Hori dela-eta, Udalak Aldai hilerria zabaltzea erabaki du. Hori bai, esan beharra dago alde batetik hilerrirako Maalako sarrera itxita egongo dela. Hortaz, Obenerrekatik bakarrik sartu ahal izango da. Domu Santu egunerako hilerria txukuntzen ibili dira.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Dena da zilegi

Aste honetan jakin dut Almeria hirian aparkalekuak egiteko lanetan zebiltzala, Espainiako gerrako gordelekuak aurkitu dituztela. Aurkikuntza hori egin ostean, Udaleko ardura-dunek erabaki dute aparkaleku gutxiago egitea eta gordeleku horiek bere horretan uztea, hiriaren historia ere badirelako. Antza denez, gauzak desber-

din ikusten dira Espainian han gertatzen direnean.

Euskal Herrian, ostera, badirudi dena dela zilegi, eta interes ekonomikoak eta agintarien burugogorkeria nagusitu egiten dira. Horra hor, esaterako, Iruñeko Gaztelu plazan gertatu dena. Izugarritzko aurkikuntza historikoa izan arren eta horregatik kritika ugari izan dituen arren, Iruñeko alkate

Yolanda Barcinak ez du atzera egin eta aparkalekuen proiektuak aurrera jarraitzen du. Arlo horretan, Barcinak Almeriako agintariengandik badu zer ikasi.

Itoitzen proiektuak ere bere horretan jarraitzen du. Orain dela gutxi ikusi genuen Artozki herria zelan suntsitu zuten. Urtegiak egiteko ez da beharrezkoa eraikinak suntsitzea, baina amorruez egiten dute. Euskal Herrian dena da zilegi, eta kexatuz gero...

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

ENRIKE LETONA ASKATZEA HELBURU DUEN BILGUNEA AURKEZTU ZUTEN EGUAZTENEAN

Eguazten eguerdian Enrike Letona mondragoetarra askatzea helburu duen Bilgunea aurkeztu zuten udaletxean. Inaki Mendigurenek, Agustin Letonak, Inazio Lakunzak, Xabier Zubizarretak eta Angelita Biterik egin zuten berba aurkezpenean eta, besteak beste, Enrike Letonaren egoera zein


den azaldu eta Bilgunearen ekintzak zeintzuk izango diren azaldu zuten. Bilgunearekin bat egin dute EAJ, Herri Anitza, EA, Aralar, Ezker Batua eta Zutik alderdiek. Horrez gain, ELA, LAB eta ESK sindikatuek, Etxerat taldeak eta beste hainbat erakundek babesa eman diote. /X.U.



EGUZKI GRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETIA



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebeldun hizkiak

Jokin Zaitegi lehiaketan atzerriko puntako eleberriak euskaratzen dihardute

IKER BARANDIARAN

Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketak hamazazpigarrena egingo du aurten. Iaz bilakaera handia izan zuen lehiaketa ezagun horrek; AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak Literaturako Nobel sarituen liburuak euskarara itzultzeko ekimena jarri zuten abian.

AEDk Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketa antolatzen dihardu, Jokin Zaitegi arrasatear idazlea gogorarazteko eta hark literatura unibertsala euskaratzen egindako ahaleginari eusteko. Lehiaketa hori oso ezaguna da Euskal Herrian. Izan ere, 17 urte bete ditu, euskarazko itzulpen lehiaketa garrantzitsuenetakoa da eta dagoeneko Euskal Herri osoko lagunek hartu dute parte.

Lehenengo urtetik (1987tik) 1995era arte (biak barne), AEDk itzultzeko gai zehatzak ipini zituen urtero. Besteak beste, honako hauek: *Bizimoduaren hobekuntza*; *Biogenetika*; *Soziolinguistika*; *Ekialdeko Europaren aldaketa*; *Energia iturrien bilakaera: etorkizuneko energia*; *V. mendurren Amerikaren aurkikuntza*; eta *Jugoslaviako aldaketak*. 1996tik aurrera, ostera, itzultzeko gaiak libre utzi zituzten.


Lehiaketa sortu zutenetik gaur egunera arte idazle eta itzultzaile askok hartu dute parte. Besteak beste, honako arrasatearrek sariak jaso dituzte: Txipi Ormaetxeak (1997) eta Ander Etxeberriak (2001). Lehenengok *Euskararen etorki eta ahaideak: datuen analisia* lana egin zuen eta bigarrenak *Energiak* lana itzuli zuen.

ALDATZKO BEHARRA

2001ean AEDk hausnarketa egin zuen, eta Jokin Zaitegi lehiaketa aldatzeko premia handia ikusi. Hala, mintegia antolatu, eta itzulpen gintza, literatura eta euskalgintzako hainbat aditurekin berba egin zuten. Lau aukera nagusi aztertu zituzten euskarazko itzulpenak egiteko: Literaturako Nobel sarituen liburuak; Unibertsitate eta Lanbide Heziketako testuliburuak; antzerki lanak; edo gazte eta helduentzako komiki bildumak.

AEDko arduradunek urte bakoitzeko Literaturako Nobel sarituen liburuak euskaratzea erabaki zuten. Horretarako, liburu argitaletxe baten laguntza behar zuten, eta Elkarlaneanekin jarri ziren harremanetan.

Mintegian, AEDko arduradunek lehiaketaren helburuak berretsi egin zituzten. Honako hauek dira: euskararen normalizazioaren bidean urratsak ematea; itzulpen gintza jarduera gisa bultzatzea; euskaraz eskuragaitzak ziren gaiak landu eta euskaldungoari eskaintzea; maila-



Itzulpen lehiaketa horren helburu garrantzitsuenetako bat da Jokin Zaitegi euskaltzalearen izena eta lana gogoratzea.

Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketak izugarritzko bilakaera izan du azken urteotan

ko ekintza bat antolatzea, AEDren irudia indartzeko; eta Jokin Zaitegi euskaltzale arrasatearra omentzea. Besteak beste, Zaitegik itzulpen lanak egin zituen.

AEDk antolatzen duen lehiaketak Jokin Zaitegi euskaltzalea omendu gura du

JOKIN ZAITEGIK, IBILBIDE LUZEA
Jokin Zaitegi 1906ko uztailaren 26an jaio zen Erdiko kalean. 14 urterekin erlijio-ordena baten sartu zen. Ikasketa mordo egin

Erronka honetan AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak batera lan egin dute

zituen. 23 urterekin erlijio-ordena Venezuelara bidali zuen. Handik Belgikara jo zuen. Sasoi hartan olerkigintzan hasi zen, baita klasikoak euskarara itzultzen ere.

Iazko Nobel sarituaren liburu bat, euskaraz argitaratuta

Joan den urtean, AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak lehenengo aldiz bat egin zuten, eta Literaturako Nobel sarituen liburuak euskaratzeko ekimena jarri zuten abian.

2002an Imre Kertesz hungariarrak Literaturako Nobel saria jaso zuen. Elkarlanean argitaletzeko Inaki Mendiguren harremanetan jarri zen idazlearen agente eta editoreekin. Hungariarraren bibliografia aztertuta, hark dituen sei eleberrien artean

Sorstalanság liburuak aukeratu zuten. Obra horrek 260 orrialde inguru ditu gaztelaniazko bertsioan. Antolatzaileek ikusi zuten oso gaitza izango zela hungarieraz dakien itzultzailearik aurkitzea, eta alemanezko bertsiotik abiatzea gomendatu zuten.

Lehiaketa abian jarri zuten eta parte-hartzaileek *Sorstalanság* liburuaren sei orrialde itzuli behar izan zituzten. Epaimahaikideek eta Karoly Morvayek -euskaraz dakien

hungariar batek- Urtzi Urrutikoetxearen lana aukeratu zuten.

Liburu osoa euskaratzeko, Urtzi Urrutikoetxeak 3.500 euroko beka jaso zuen. Lan hori bukatu, eta Elkarlanean argitaletxera bidali zuen. Argitaletzeko arduradunek *Zoririk ez* euskarazko itzulpenari azken ukituak eman dizkiote, eta azaro bukaeran aurkezteko asmoa dute. Kerteszek ume baten begirada berezitik holo-kaustoa azaltzen du.

1936an, Teologia ikasketak amaituta, Ameriketara jo zuen berriro. 1944an erlijio-ordena utzi zuen eta 1950ean, Guatemalan, *Euzko Gogo*a aldizkaria sortu zuen. 1951n ikastetxe propioa zabaldu zuen.

Lehenengo euskal gobernua-ren hogeitau urteak bete zirenean, Jose Antonio Agirre lehendakariak Baionan Euskal Kulturaren Alde batzordea eratu zuen, eta Jokin Zaitegi presidente izendatu zuten.

1972an Jokinek Arrasaterako bidea hartu zuen eta 1976an Arrasateko seme kutun izendatu zuten. 1978ko abuztuaren 17an hil zen, Donostian.

LITERATURAKO NOBEL SARITUAK

AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak honako helburuak betetzea bermatu gura dute Literaturako Nobel sarituen liburuak euskaratuta: kalitatezko emaitza ziurtatzea, argitalpena ziurtatzea, ekonomikoki bideragarria izatea, interes orokorrari erantzutea, gaurkotasuneko gaiak jorratzea eta Jokin Zaitegiren pentsaera islatzea, besteak beste.

IZENEMATEA ZABALIK

XVII. edizio honetan, antolatzaileek erabaki dute 2003ko Literaturako Nobel saria jaso duen John Maxwell Coetzee idazle hegoafrikarraren *Disgrace* eleberria euskarara itzultzea.

Lehiaketan parte hartu gura dutenek liburu horren lehenengo sei orrialdeak euskaratu beharko dituzte, eta egindako lanaren hiru kopia AEDra bidali beharko dituzte, 2003ko abenduaren 10a baino lehen. Jatorrizko testua -sei orrialde horiek- eskuratzeko Elkarlaneanera jo beharko dute; honako webgunean ere eskura dezakete: www.elkarlanean.com/jokinzaitegi. Epaimahaia jasotako itzulpenak aztertu eta haietako bat izendatuko du irabazle, 2004ko urtarilaren amaiera baino lehen. Irabazleak 4.200 euroko saria irabaziko du eleberri osoa itzultzeko. Lan amaitua 2004ko irailaren 1ean entregatu beharko du Elkar argitaletxean. Euskarazko liburu hori 2004ko Durangoko Azokan aurkeztuko dute.

POLITIKA/ Urriari dagokion osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak astelehenean

Aurkeztutako mozioen ondorioz, eztabaida politikoa nagusitu zen osoko bilkuran

UBANE MADERA

Estatutua, herritar homosexualak, Buruntzaperen kontrako polizi operazioa, genero indarkeria eta atzerritarren legea berbagai izan ziren, besteak beste, osoko bilkuran. Udaleko kontuekin alderdi guztiak ados egon ziren; ez, ordea, mozioetan aurkeztutakoarekin.

Luzea izan zen asteleheneko batzarrak, batez ere, mozio asko eta haiei aurre egiteko mozio alternatiboa aurkeztu zituztelako alderdi politikoei. Hain justu ere, mozioek sortu zuten eztabaida zinegotzien artean; gainerako gai guztiak eztabaida barik onartu zituzten, eta gainera, asko aho batez.

Onartutako gaien artean aipatzekoa da, adibidez, animalien gainekoa. Erabakitakoaren arabera, norbere animalien batek beste norbaiti eraso egiten badiu, animalien jabeari zigor espedientea ireki ahal izango diote.

Hortik aurrera, mozioak eztabaidatzen ibili ziren zinegotziak.

ESTATUTUAREN GARAPENAREN ALDEKOA

Mozioen artean ikusmira gehien piztu zuena Estatutuaren gainekoa izan zen. PSE-EEK aurkeztutakoa. Arrasaten aurkeztutako mozio horrekin + Estatuto kanpaina abiarazi du alderdi sozialistak. Oro har, Estatutuaren izaera plurala, demokratikoa eta konstituzionalista nabarmentzen ditu; eta haren garapenaren alde egin. EAEn elkarbizitzarako ezinbesteko tresna moduan. PPK bat egin zuen PSE-EEren argudioekin eta mozioaren alde bozkatu zuen. Edozelan ere, gainerako guztiek (EAJ, EA, EB eta Aralar) kontra bozkatu zuten; hortaz mozioak ez zuten aurrera egin. Gai beraren gainean EAK aurkeztutako mozio



PSE-EEK eta PPK esan zuten Buruntzaperen kontrako polizi operazioa ez zela euskararen kontrakoa izan.

alternatiboa bozkatu eta onartu zuten, EAJren eta EAren aldeko botoekin. EAren mozioak zera zioen, besteak beste: Estatutua onartu zenean ez zegoela bestelako proposamen politikoak aurkezteko nahikoa askatasunik; Estatutua ez dela bete; esaten du sistema bat demokratikoa izan dadin edozein planteamendu politiko defendatzeko aukera egon behar dela, eta hori aurrera eramateko aukera, herritarrek onartuz gero. ETari desagertzeko eskatzen diote, giza eskubideen aldeko defentsa egiten dute; Eusko Jaurlearitzak abiara

zi duen proiektuari erabateko babesa ematen diote; eta aldarrikatzen dute herritarrek gura dute-na izango dela EAE.

BURUNTZAPEREN KONTRAKO OPERAZIOA

Bestalde, Buruntzaperen kontrako polizi operazioa dela-eta, EAK aurkeztutako mozioa onartu egin zuen udalbatzarrak EAJren, EAren eta Aralarren aldeko botoekin; EB abstenitu egin zen eta PPK eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten.

Hala, onartutakoaren arabera, Arrasateko Udalak atxikimendua ematen die atxilotutakoentzako familiari;

atxikimendua ematen diote baita ere TAT eta Amnesty International elkarten aldetik tortura erazteko proposatutako neurriei; tortura jasanezina dela dio; polizi operazioa euskararen kontrako eraso dela; Donostiako manifestazioarekin bat egiten du; eta dio gatazka politikoaren irtenbidea elkarrizketa bidez etorriko dela.

BESTELAKOAK

Eta gainerako mozioen artean, udalbatzarrak onartu egin zuen PSE-EEK emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko aurkeztu-

Zenbait alderdik behin eta berriz salatu zuten Estatutua oraindik ez dela bete

Emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko mozioa onartu zuen udalbatzarrak

tako mozioa, PSE-EEren, PPren, EAJren eta EAren aldeko botoekin. Familiako indarkeriaren biktimak babesteko eta defendatzeko tresnak erabiltzeko eta indartzeko eskatzen dute mozio horretan.

Bestalde, pertsona homosexualen adopzio eskubideen gaineko mozioa onartu ere zuten. Mozio horrek gay eta lesbianen duintasun eta berdintasun eskubideak berresten ditu, eta haieki bereizketa gorde gura duten zenbait indar integristen erreakzio homofoboa salatzen du. Eskatzen du PPK ken ditzala Izatezko Bikoteen Legearen aurka jarritako helegiteak; aitor dezala bikote homosexualen adopzioarako duten eskubidea eta errespetu daitezela pertsona horien giza-eskubideak.

Eta EBk Atzerritarren Legea eta Toki Administrazioaren Legea aldatzeko proiektuaren gainean aurkeztutako mozioa ere onartu zuten, EAJren, EAren, Aralarren eta EBren aldeko botoekin.

Hilerrira joateko autobus zerbitzu berezia egongo da

U.M.

Arrasateko autobus urbanoa kudeatzen duen Leintz Garraioak enpresak zerbitzu berezia ipini du Domu Santu eguna dela eta, San Kristobal hilerrira igotzeko. Hain zuzen ere, bihar eta etzi izango dira zerbitzu berezi horiek. Hala, urriaren 31n orduko ibiliko da autobusa. Goizean, 10:00etan aterako da lehenengo autobusa eta 12:30ean bueltatuko da azkena. Arratsaldean, berriz, 15:00etan aterako da aurreneko zerbitzua eta 18:30ean bueltatuko da azkenekoa. Eta azaroaren 1ean, goizean bi autobus ibiliko

dira zerbitzua egiten, 30 minutu. Aurrenekoa 10:00etan aterako da eta 13:30ean bueltatuko da azkena. Arratsaldean, berriz, hiru autobus ibiliko dira, 20 minutu. Lehenengoa 15:30ean aterako da eta azkena 19:00etan itzuliko da.

Lehen esandako moduan, autobus zerbitzu berezi hori San Kristobal hilerriraino iritsiko da. Honako ibilbidea egongo du: Gorostiza, Erguin, San Viator txiki, San Andres, Garibai, Maala, San Frantzisko, Legarre, Musakola, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Makatzena eta hilerrira.



Bihar eta etzi egongo dira zerbitzu bereziak, Domu Santu dela-eta.

LABUR

Jolasleku berria izango dute umeeek Santa Marinan

Santa Marinako parkerako ekipamendua YOR, SA enpresari erosiko diola erabaki du oraingo astean Gobernu batzordeak. 22.300 euro pasatxo onartu ditu beharrezko guztia erosteko. Hala, Santa Marinako parkean kulunkak, txirrista eta antzerakoak ipiniko dituzte, umeeek jolas egin dezaten; hori guztia behar bezala babestuta, umeeek minik har ez dezaten; helburu berarekin zoru berezia ipiniko dute, elastikoa.

EMAKUME SAILA/ Bigarren urtez, emakumeendako beka aurkeztu du Arrasateko Udalak

Azaroaren 26ra arte egongo da zabalik emakumeendako beka eskatzeko epea

UBANE MADERA


Bigarren urtez, emakumeendako beka abiarazi du Arrasateko Udalak. Emakumeek proiektuak aurrera eramateko dituzten arazoak arintzeko helburua du beka horrek. Hala, edozein proiektu aurkeztu ahal izango da. Azaroaren 26a da aurkezteko azkeneko eguna.

Emakumea izatea eta Arrasatekoa izatea. Horiexek dira Arrasateko Udalak eskaintzen duen emakumeendako beka eskatzeko bete behar diren baldintza bakarrak. Biak betetz gero, proiektu bat aurkeztu beharra dago beka lortu ahal izateko. Gero, Udalak aurkeztutako proiektu guztiak aztertu eta bat aukeratu du, aurrera eramateko. Proiektu horren egileari 3.000 euroko beka emango dio Udalak.

EDOZEIN MOTATAKO PROIEKTUAK

Emakume Saileko arduradun Joxe Etxeberria eta sail bereko teknikari Maite Barreñak prentsaurrekoan esandakoaren arabera, berdin da zeren gaineko proiektua aurkeztu den: enpresek in lotutakoa, heziketarekin lotutakoa, kirol-proiektua... Iaz, adibidez, Melina Lopezek eskuratu zuen beka eta industriarekin lotutako eskultura egin zuen; gaur egun Industria Erakusketan dago eskultura hori. Azken batean, bekaren helburua da emakumeei euren proiektuak egiten laguntzea; Maite Barreñaren esanetan, emakumeek horrelakoak egiteko baldintza txarragoak izaten dituzte-eta.

Beka eskuratu gura dutenek idatziz aurkeztu beharko dute proiektua, azaroaren 26a baino lehen. 15 egunean erabakiko du Udalak nori eman.



Arrasateko Udalak 3.000 euro emango ditu bekarako; argazkian, Joxe Etxeberria eta Maite Barreña.

GORKA ETXABE

Emakume Txokoaren azaroko egitaraua

Emakume Txokoak zehaztu du datorren hilerako egitaraua; honako ekimenok egongo dira:

- Azaroak 5, eguaztena: hitzaldia, *Gizonezkoen zeregina sexismoaren aurrean*, 19:00etan; hizlaria: Xabi Odriozola.
- Azaroak 15, zapatua: Gasteizera irteera. Tartean, *Gasteizko emakumeak, kultura eta heziketa izeneko bisita gidatua eta Artium museoa*. Izena emateko: 943 79 41 39 (azarok 11 baino lehen, 6 euro).
- Azaroak 19, eguaztena: hitzaldia,

Emakumeen aurkako erasoaren aurrean zer?, 19:00etan; hizlaria: M^a Angeles Alvarez (Mujeres-Madrid fundazioa).

- Azaroak 23, domeka: antzerki emanaldia, Mercedes Farriols taldearen *Encarnación* lana, 19:30ean, Amaia antzokian.
- Azaroak 25, martitzena, Genero Indarkeriaren Aurkako Eguna: kale bilkura, 19:30ean, plazan.
- Azaroak 26, eguaztena: bideo forum-a, Itziar Bollainen film laburra: *Amores que matan*, 19:00etan.

Datozen bi urteotarako lan poltsak sortuko ditu Udalak

U.M.

Peoiak eta administrari laguntzaileak behar ditu Arrasateko Udalak, datozen bi urteotan sor daitezkeen beharrak asetzeko. Lehiaketa deitu du Udalak, lan poltsa osatzeko helburuarekin.

Peoien lan poltsa osatzeko lehiaketa deitu du Udalak. Interesa dutenek azaroaren 11 baino lehen eman beharko dute izena, izan ere, egun horretan, 10:00etan Udaltxean egon beharko dute; euskarazko froga egingo diete. Azkeneko froga azaroaren 20an izango da. Besteak beste, eskolatzeko


agiria edo baliokidea eta B1 gida baimena behar dira aurkezteko.

Lan poltsan sartzen denak eskubidea izango du datozen bi urteotan Udalean egon daitezkeen beharrak asetzeko kontratatua izateko.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK

Bestalde, administrari laguntzaileen lan poltsa ere sortuko du Udalak. Interesa duenak azaroaren 1etik 11ra bitartean eman behar du izena. Besteak beste, batxilergoa, eskola graduatua, LHI edo haren baliokidea behar dira lehiaketara aurkeztu ahal izateko.

Datozen bi urteotako beharrak ase gura dituzte.



Besteak beste, administrari laguntzaileak behar ditu Udalak.

GORKA MORRAS

LABUR

Emakumeendako soldadura ikastaroa antolatu dute

Langabezian dauden emakumei lana aurkitzen laguntzeko asmoarekin soldadura ikastaroa antolatu du Arrasateko Udalak. Ikastaro horren bitartez, prestakuntza berezirik ez duten emakumeak prestakuntza hartu ahal izango du ikastaroan. 400 eskola-ordu emango dituzte, datorren hiletik aurrera, azaroaren 17an hasi eta apirilaren 30era arte. Oñatiko Udalen soldadurako lantegian emango dute ikastaroa. Interea duten emakumeek Arrasateko Udaleko Enplegu Sailera jo beharko dute lehenbailehen izena ematera.

Iaz ere egin zuten halako ikastaroa, eta han izandako emaitza onak ikusita proposatu zuen Udaleko enplegu teknikariak aurrean halako beste bat egitea.

Babes ofizialeko etxebizitzetarako zerrendak onartuta

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du dagoeneko onartu duela babes ofizialeko alokairuzko etxebizitzetarako zerrendak sartuko diren eta sartuko ez diren zerrenda. Arrasateko Udalarik bidali dio zerrenda hori, hortaz, eta gura duenak han ikusi ahal du. Edozelan ere, oraindik ez dute zehaztu noiz egingo duten zozketa hori.

Zenbait baserri auzotako bideak konponduko dituzte

Uribarri, Zaldibar eta Udala baserri auzotako bideetan dauden zenbait zulo eta putzu konponduko dituela onartu du Gobernu batzordeak. 3.500 euro inbertituko ditu lan horiek egiten. Hala onartu du oraingo astean. Hain zuzen ere, Excavaciones Arrasate enpresari esleitu dizkio lanok. Laster hasiko dira.

Makatzena auzoa birgaitzeko proiektua dela-eta

Makatzena auzoko alkatetzak eta hango bizilagunek Arrasateko Udalarik eskatu zioten Makatzena birgaitzeko proiektuari alegazioak aurkezteko dagoen epea luzatzea. Auzotarrek proiektua hobeto aztertu gura zuten. Udalak onartu egin du proposamena eta abenduaren 2ra arte utziko dute jendaurrean.



ARRASATE-ARETXABAETA INSTITUTUOKO EK FRANTZIAKO IKASLEEKIN ELKARTRUKEA

Goian azaltzen diren bi argazkietako gazteak Arrasate-Aretxabaeta Institutuko eta Saintesko ikasleak dira. Joan den ikasturtean Arrasate-Aretxabaeta Institutuko ikasleak Saintesen izan ziren, eta hango ikasleak urriaren 15ean etorri ziren gurera. Horrelako ikasle trukaketak oso aberasgarriak izaten dira, ez astebetean beste hizkuntza bat ikasten dutelako, horrelakoetan ikasleek ederto pasatzen dutelako baizik. Aurtengo ikasturterako ere antolatu du ikasle trukaketa Arrasate-Aretxabaeta Institutuak. Oraingoan ere Frantziara joango dira, Tolosako Bellevue Lycee ikastetxera, hain zuzen.



HORRELAKO GIRO HOTZAREKIN, DOZENAKA GAZTAINA

Gaztaina saltzaileak aspaldi jarri zuen Portaloian ohiko gaztaina postua. Egiten duen giro hotzarekin, gaztainak atsegin ez dituenak ere dozenaka erosi beharko lituzke; eskuak berotzeko ez dago eta gaztaina beroak esku artean edukitzea modukorik. Gaztainak saltzeko postuak berezia izateaz gain, tren itxura dauka. Esangura handia du, negua datorrela iragartzen du-eta. Urriko azken astelehenean, Gernikako azokan produktuen garestitzea albiste izan zen. Badaezpada, gaztaina saltzaileari galdetu diogu zenbat balio duen gaztaina dozenak: 1,5 euro erantzun digu. Norberak neurtuko du prezio hori merkea edo garestia den. Hori bai, Portaloitik merienda egin barik pasatu eta hotza egiten badu, hori baino askoz ere gehiago pagatuko lukete askok.



ZALDIBARKO ANTOLATZAILEAK

Oraingo astebururik aurrera, futbola atsegin dutenek hitzordu garrantzitsuak izango dituzte Zaldibarko pilotalekuan.

ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETA

Bihar goizean hasiko da 2003-04 Zaldibarko futbito txapelketa

Hogeita bost taldek eman dute izena, eta horietako lau kanpokoak dira

XABIER URZELAI

Bihar goizean jokatuko dute 2003-04 Zaldibarko txapelketa lehenengo partidua. Goma2 eta El Ekipo A taldeek estreinatuko dute aurtengo txapelketa. Joan den urtean baino hiru talde gutxiago daude, baina txapelketa ikusgarria izango da, arau interesgarriak daude-eta.

Antolatzaileak lanean ibili dira txapelketa hobe eta ikusgarriagoa lortzeko asmoz. Hasteko, hamar taldetako jokalariek osatzen dute antolakuntza. Horrek esan gura du antolatzaileak jende berria hartzen ahalegindu direla, eta hartu dituzten erabakiek jende askoren onarpena izan dutela.

ARAU BERRIAK

Zaldibarko txapelketan joko gogorragia egon ez dadin, antolatzaileek penalti bikoitzaren araua probatu gura dute aurten; horrela, partiduko zati bakoitzean talde bakoitzak gehienez sei falta egin ahal izango ditu. Seigarren faltatik aurrera, epaileak falta adierazten duen bakoitzean, falta jaso duenak 11 metrotik zuzeneko jaurtiketa egin ahal izango du. Hau da, penalti jaurtiketa modukoa izango da, baina 11 metrotik eginikoa. Gerta daiteke, falta hori hamaika metroen eta arearen artean egitea; orduan, falta izan den lekutik egin ahal izango da jaurtiketa.

Arau berri horrekin argi dago taldeek ezin izango dutela gura

beste falta egin, eta gogor jokatzen duten taldeek kontu handiagoarekin ibili beharko dute.

Falta horien zembaketa ez du epaileak egingo; antolatzaileak arduratuko dira horretaz.

NEURRI GOGORRAK

Aurten, odol beroko jokalariek hobe izango dute partidua hasi aurretik lasaigarriren bat hartu. Antolatzaileek zigorrak gainera zerrenda egin dute, eta aurten hartuko diren erabakiak berak izango dira talde eta jokalarizuztiendako. Berritasun hori uste baino garrantzitsuagoa da, orain arte antolatzaileek zigorrak irizpide zehatz barik ezartzen zituzten-eta. Zigorrak zehazterako orduan, antolatzaileek falta ari-ri eta falta gogorak desberdindu gura izan dituzte. Irainak egiteagatik partidu batetik hiru

partidura arteko zigorrak ezarriko dituzte. Horrez gain, epaileari eraso egitea ez dute inondik inora onartuko, eta hori egiten duenak ez du gehiago jokatuko. Horren harira, jokalariren batek jokaldi gogorra egin eta epaileak ezer adierazten ez badu ere, antolatzaileek neurriak hartzeko eskubidea izango dute. Aurten, antolatzaileek beste finantza-bide batzuk topatu gura izan dituzte, eta txapelketan izena emateko prezioa 20 euro merkatu dute.

BESTETAN BAINO KANPOTAR GEHIAGO

Aurten kanpoko lau taldek hartuko dute esku Zaldibarko txapelketan: Aramaioko eta Oñatiko lau talde izango dira Zaldibarren. Aramaioko taldeak ez dira Zaldibarren berriak, baina azken urteotan ez da Oñatiko talderik egon. Ongi etorri, beraz.

Kontuan hartzeko lana

Zaldibarko txapelketaren gainera lehenengo lerroak dira hauek; horrenbestez, ezinbestekoa da beste ezer esan aurretik aurten ere antolatzaileek egin duten eta egingo duten lana azpimarratzea. Eurei esker, beste urte batez jokalaria eta ikusleek Zaldibarko txapelketa-ekin gozatu ahal izango dute. Gainera, antolatzaileek, txapelketa antolatzeaz gain, gero eta txapelketa ikusgarriago baten alde dabilta lanean. Penalti bikoitzaren araua da aurtengo berritasun handiena; antolatzaileek argi utzi gura izan dute lehenengo bost jardunaldiak arau hori probatzeko izango direla. Arauak emaitza onak ematen baditu aurrera, eta ez bada horrela arau hori kentzeko erabakia hartuko dute. Ez dago txarto.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

MULTZOKAK

A MULTZOA

Aloña Taberna
Koka Juniors
Abokajarro
Rayo Aldeano
KPPC
AT Celaya
Alpargat-Estutu
Bikain Akademia
Betrayer
Billy & The Cowboys
Iriztu Taberna
You Know
Saukelu Scream

B MULTZOA

Goma2
El Ekipo A
AC Surcos
Fuxxión
Toma Hawk
Whiskeria
Dribling
Etterat
Lasagabaster
Dream Team
Speed Boys
Errasti Kristaldegia


PARTIDUAK

AZAROAK 1, ZAPATUA

09:50: Goma2 - El Ekipo A. **Koka Junior**
11:00: Aloña Taberna - Koka Junior. **Goma2**
12:00: Abokajarro - Rayo Aldeano. **Aloña**
13:00: KPPC - AT Celaya. **Abokajarro**
14:00: Alpargat-Estutu - Bikain Akad. **KPPC**
15:00: AC Surcos - Fuxxión. **Alpargat**
16:00: Toma Hawk - Whiskeria. **AC Surcos**
17:00: Betrayer - Billy & The... **Toma Hawk**
18:00: Dribling - Etterat. **Betrayer**

AZAROAK 2, DOMEKA

11:00: Lasagabaster - Dream Team. **Speed**
12:00: Speed Boys - Errasti Krist. **Lasaga.**
13:00: Iriztu Tab. - You Know. **Errasti Krist.**
Deskantsua: Saukelu Scream.



XABIER URZELAI

Hamaika metrotik egin beharko da penalti bikoitzaren jaurtiketa.

APUSTUAK ONARTZEN DIRA

TALDE EZAGUNAK ETA EZUSTEAK

Zaldibarko txapelketako talde asko ezagunak dira. Aurtengo txapelketako irabazlea nor izan daitekeen esaterako orduan, faborito asko daude. Joan den urtean AT Celaya izan zen talde onena, baina final-laurdenetara sailkatu ziren zortzi taldeetako edozein izan daiteke aurtengo faborito. Horrez gain, joan den urtean atzean geratu ziren taldeek ere ezustea eman dezakete; baita Oñatiko eta Aramaioko talde berriek ere.

Horrez gain, aurten hainbat talde-elkartu egin dira; Alpargat-Estutu da adibideetako bat. Ikusi egin beharko da talde horiek ze maila erakusten duten.

ERRESPEATU BEHARREKOAK

Lehenago aipatu ez badugu ere, Zaldibarko txapelketan esku hartuko duten taldeek elastiko berarekin jokatuko beharko dute; edo, gutxienez, kolore bereko elastikoak erabili beharko dituzte. Horrez gain, urtero-urtero baloi mordoak galtzen dira, eta antolatzaileek gogorazi gura dute baloi bat kantxatik irteten denean, ate hori defendatzen duen taldearen ardura dela baloia hartzera joatea.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Anaitasuna - Mondra

Preferente. Zapatuan. 15:45. Azkoitian.

Mondra - Añorga

Ohor. gazteak. Zapatuan. 15:45. Atxabalpen.

Antzuola - Arrasate

Big. gazteak. Zapatuan. 15:30. Antzuolan.

Arrasate - Touring

Ohor. kadet. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.

Antzuola - Arrasate

Big. kadeteak. Domekan. 16:00. Antzuolan.

SASKIBALOA

Ointxe Arrasate - Zornotza

Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

ESKUBALOA

Donibane Majestic - AGR Arrasate

Lehen territ. Zapatuan. 17:00. Donibanen.

Hondarribia - Arrasate B

Bigarren territ. Domekan. 10:00. Hondarribian.

Arrasate C - BKL/CAF

Bigarren territ. Zapatuan. 12:00. Iturripen.

Zarautz - Gatz Museoa

Kadeteak. Domekan. 12:00. Zarautzen.

Gatz Museoa - Urola

Gazte maila. Zapatuan. 10:30. Iturripen.

ERRUGBIA

Arrasate - Besaya

Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

PILOTA (Gipuzkoako Taldekako Txapelketa)

Arrasate - Bergara

Eskuz banaka. Egubakoitza. 19:30. Bergaran.

Azkoitia - Arrasate

Eskuz binaka. Egubakoitza. 19:30. Azkoitian.

ESKUBALOIA

AGR Arrasatek hiru goleko aldearekin irabazi zion Urnietako taldeari (33-30)

Oraindik ere sasoi betean ez badaude ere, 'Pitxi' Herreroren mutilek ondo hasi dute Liga Txapelketa: hiru partidutatik bi irabazi dituzte

XABIER URZELAI

Liga Txapelketako hirugarren jardunaldian, AGR Arrasatek lehen territorial mailako talde indartsuenetakoa izango dela erakutsi zuen. Mondragoetarrek ez dute aurrendenboraldi onik egin, eta hala ere hiru partidutatik bi irabazi dituzte.

AGR Arrasate taldea ehuneko ehunean egon barik norgehiagokak irabazten dabil. Lehenengo jardunaldian galdu zutenean, argi geratu zen aurtengo aurrendenboraldian mondragoetarrek ez dutela gura bezala lan egin, baina hala ere azken bi partidua irabazi egin dituzte. Horrek esan gura du sasoi onenean egon barik AGR talde gogorra dela.

BOLADAKA JOKATZEN

Joan den astean bezala, domekan ere Arrasateko mutilek boladaka jokatu zuten. Gaizki hasi zuen Arrasatek partidua, eta Urnietako berehala aurreratu zen markagailuan (1-6). Pitxi Herrerok hutsartea eskatu eta jokalariekin berba egin eta gero, gauzak dezentelaldatu ziren. Auskalo zer esan zien jokalariei, baina bost minutuan norgehiagoka berdindu zuten (7-7). Partidua berdintzeaz gain, AGR Arrasate markagailuan aurreratu zen (14-11). Alda-geletara hiru goleko aldearekin



OLAIA MONDRAGON

Arrasateko eskubaloiko talde nagusiak azken minutuetan estututa irabazi zuen partidua.

erretiratu ziren mondragoetarrek, baina bigarren zatia ere gaizki baino gaizkiago hasi zuten Arrasatekoek, eta Urnietakok ez zuten aukera hori galdu. Bigarren

zatia parekatua izan zen, baina Urnietako taldea ibili zen aurretik. Norgehiagoka amaitzeko bost minutu falta zirenean, kanpotarrek bi goleko aldea zuten (27-29).

Eta hori ikusita, AGR Arrasatek azken esfortzua eginda 1-6ko partziala lortu zuen. Hala, partidua hiru goleko aldearekin irabazi zuen (33-30). Partiduaren amaie-

ran, GOITBko lankideak Aitor Txabarri taldeko atezainarekin irabazi zuten: "Partiduetan 5-10 minutuan behera egiten dugu, eta hori hobetu egin behar dugu".

Arrasatek 'entrenamendua' egin zuen Getxoren kontura

X.U.

Getxok talde indartsuak izaten ditu errugbian. Arrasatera, baina, Getxo C taldea etorri zen, hau da, hirugarren taldea. Mondragoetarrek, liga hasi baino gehiago, entrenamendua egin zuten zapatuan (72-0).

Liga Txapelketako lehenengo partidua atzeratu eta gero, Arrasatek zapatuan jokatu zuen aurtengo denboraldiko lehenengo partidua ofiziala.

Mondragoetarrendako, baina, partidu ofiziala baino gehiago, entrenamendua izan zen, Getxoko hirugarren taldea oso makal ibili zen-eta. Getxok beste bi talde ditu goiko mailatan, eta talde horiek gogorak badira ere, argi dago senior mailako Liga Txapelketan Getxoren izenak ez duela errespetu handirik ezarriko. Zapatuan erraz baino errazago nagusitu ziren David Jauregiren mutilek. Gura beste entsegu egin

zituzten, bai lehenengo zatian baita bigarren ere. Azkenean, mondragoetarrek 72 puntu egin zituzten; bizkaitarrak, berriz, Arrasateren zutuin ingurura hurreratu ere ez ziren egin.

23 TALDE LIGA TXAPELKETAN

Senior mailako Euskal Liga Txapelketan 23 talde daude aurten. Talde horiek guztiak lau multzotan daude banatuta, eta Arrasate B multzoan dago, Arratiko, Durango, Besaya, Getxo eta Zarautz taldeekin batera.

Multzo bakoitzeko lehenengo bi sailkatuek egingo dute lehenengo fasean aurrera. Arrasateko taldearen helburu nagusia, hortaz, B multzoko lehenengo taldeetako bat izatea da. Helburu hori lortzeko, mondragoetarrek ondo baino hobeto hasi dira. Argi dagoena da kontrario guztiak ez direla Getxo C taldea bezalakoak izango. Arrasatearren hurrengo aurkaria Kantabriako Besaya taldea izango da.



OLAIA MONDRAGON

Arrasatek denboraldiko partidu errazenetakoa jokatu zuen talde bizkaitarren kontra.

PILOTA

Lazkanok gaur irabazten badu, bigarren faserako txartela eskuratuko du

Pilotari mondragoetarrak Gipuzkoako taldekako txapelketa barruan lau partidu jokatu eta hiru irabazi ditu

XABIER URZELAI

Bikotekide barik geratu da aurten Aitzol Lazkano, Iker Zugastik pilota uztea erabaki du-eta. Bakarrik, baina, ondo baino hobeto moldatzen dela erakutsi du Arrasateko pilotariak, Gipuzkoako Taldekako Txapelketako bigarren fasea eskura du-eta.

Joan den urtean eskuz binaka lan polita egin zuten Zugastik eta Lazkanok. Aurten, berriz, Lazkano bakarrik dabil, eta ondo ibili ere. Izan ere, orain arte lau partidu jokatu ditu, eta horietako hiru partidutan Arrasateko pilotaria nagusitu da.


Gipuzkoako taldekako txapelketan, lehenengo kontrarioa Azkoitia izan zuen, eta mondragoetarrak 22-12 galdu zuen. Ez zuen txapelketa gura moduan hasi, baina berehala iritsi ziren emaitza onak: bigarren partiduan Tolosaren kontra 22-4 nagusitu zen; hirugarren partiduan kontrarioa ez zen agertu; eta joan den

egubakoitzean Añorgaren kontra jokatutako partiduan Lazkano 22-12 nagusitu zen. Ez zen partidu gaitza izan; Arrasatekoa berehala aurreratu zen markagailuan, eta partidu amaieran lasai jokatzeako aukera izan zuen.

GAUR, BERGARAN

Lau partidutatik hiru irabazi eta gero, pilotari mondragoetarrak gaur arratsaldean izango du bigarren faserako sailkatzeko aukera. Horretarako, Lazkanok Bergarako Erran pilotariari irabazi beharko dio. Pilota partidu Bergarako Udal Pilotalekuan jokatuko dute, 19:30ean. Norgehiagoka hori irabazita Lazkano bigarren fasean izango da, baina baliteke partidu galduta ere sailkatzeko aukerak izatea.

Taldekako txapelketan Arrasatek badu beste ordezkaririk. Eskuz binaka Agirre eta Uribarren dabilta, baina horiek ez dute partidurik irabazi. Lehenengo urtea da amateur mailan jokatzen dutena, eta hori igarri egiten da.



Lazkanok gaur 19:30ean jokatuko du Bergaran. Agirrek eta Uribarrenek ere gaur jokatuko dute, iluntzean, Azkoitian.

XABIER URZELAI

Talde indartsuenen kontra jokatuta ere, Mondra ez da kikiltzen (2-2)

X.U.

Liga Txapelketa poliki-poliki aurrera doa, eta Mondrak goiko postuetan jarraitzen du. Zapatuan preferente mailako talde indartsuenetako bat izan zen Atxabalpen, eta Mondrak ondo egin zion aurre. Norgehiagoka ikusgarria izan zen, bi taldeak joko polita egiten ahalegindu ziren-eta.

Bidezkoa ez bada ere, sailkapenak esaten du zein den talde ona. Horri begiratuta, Mondrak preferente mailako talde onenetako baten kontra jokatu zuen zapatu arratsaldean. Arrasateko taldea ez dago Elgoibar baino beherago, baina Mondra kontrarioak eza gutzen dabil, txapelketari neurria hartzen. Goiko postuetan dauden kontra jokatuta neur daitezke taldearen benetako maila.

Aurreko partiduetan bezala, zapatuan gauza bat geratu zen argi: markagailua kontratan izanda ere, Mondrak erreakzionatzeko gaitasun handia daukara; taldeak ez du behera egiten eta partiduei buelta emateko gauza direla erakutsi dute Josu Zubiairen mutilek. Horrek ez du esan gura, baina, gol bat jaso arte taldeak lo egon behar duenik.



OIHAN VEGA

Oraingo asteburuan Josu Zubiak ez ditu jokalaririk eskura izango.

Lehenengo zatian Elgoibar Mondra baino hobeto ibili zen; elgoibartarrek baloi geldituko jokaldietan min egin zuten. Horrelako jokaldi baten, Calvo atezainak ez zuen baloia gura bezala urrunditu eta Elgoibarko aurrelari bat Arrasateko defentsa baino azkarrago ibili zen (0-1). Markagailua kontratan, Mondrak ez zuen behera egin. Hala, lehenengo zatiko azken minutuan Muruak bana-koaren gola egin zuen: Garmen-

diaren jaurtiketa Arrasateko aurrelariari iritsi zitzaion, eta Elgoibarko atezainak ezer gutxi egin ahal izan zuen.

Bigarren zatian Mondrak gol aukera garbiak izan zituen, baina Elgoibar aurreratu zen markagailuan; Arrasateko defentsak egindako huts bat ondo aprobetxatuta. Mondrak ez zuen amore eman, eta Iker Lopezek egin zuen berdinketaren gola. Behin eta berriro ikusteko moduko gola.

Jarrilleros taldearen kontra galduta, Ointxe azkena da

X.U.

Arrasateko Saskibaloia Taldea azkeneko postuan dago berriro ere; asteburuan, Jarrilleros talde bizkaitararen kontra galdu egin zuten (86-72). Zorte txarreko eguna izan zen, norgehiagoka galtzeaz gain, Jagoba Gamarrak bihurritua egin zuen-eta.

Hainbat arrazoiengatik, Gorka Zurutuza entrenatzaileak ez zituen domekako partidurako jokalaririk eskura izan. Horrez gain, minutu bakarra egin zuen Jagoba Gamarrak kantxan, hasi eta berehala min hartuta erretiratu egin behar izan zuen-eta. Ez zen partidu hasteko modurik onena, baina Mondragoeko taldeak ondo jokatu zuen.

LEHENENGO LAURDENA APROBETXATU

Lehenengo hiru laurdenetan, Portugaleteko taldeak lan handia egin behar izan zuen Ointxe Arrasateko taldearen joko geldituzko. Lehenengo laurdenean bizkaitarrek gaizki jokatu zuten, baina mondragoetarrek ez zuten aukera hori gura moduan aprobetxatu (16-16).

Bigarren eta hirugarren laurdenetan zeingehiagoka parekatua izan zen; eta, markagailua da horren adierazle: 33-31 biga-

rren laurdenaren amaieran eta 61-56 hirugarren laurdenaren amaieran.

JOKALARI BAT GUTXIAGO

Ointxe Arrasatek ondo hasi zuen laugarren laurdena. Markagailuan atzetik joanda ere, Arrasatekoak partidu berdintzeaz gain, aurreratu ere egin ziren. Norgehiagoka amaitzeko bost minuturen faltan Ointxek bi puntuko alde zuen. Orduan, baina, falta larregi eginda, epaileak Mallabiabarrena aulkira bidali zuen, eta orduan egin zuen Arrasatek behera.

Ointxek pibot bakarrarekin jokatu behar izan zituen partiduko azken minutuak, eta Jarrilleros taldeak aukera hori ez zuen alferrrik galdu (86-72). Eragozpen guztiei aurre eginda, Ointxek norgehiagoka txukuna egin zuen Portugaleten. Hala ere, lehenengo laurdenean barkatutako guztiak gogotik ordaindu zituzten Arrasateko taldekoek.

Ointxe Arrasate saskibaloia taldea ez dabil gura bezain ondo. Beheko mailako taldeak, berriz, ondo baino hobeto dabilta, oraindik ez dute-eta partidurik galdu. Kadete mailan, Arrasatek 23-92 irabazi zion Bergarari. Juniorrek ere Bergara izan zuten kontrario eta 49-42 nagusitu ziren.

ARGITALPENAK / 'Putz' aldizkariaren 23.a kalean dago

Kirmen Uribe idazle ondarrutarrari elkarrizketa zabala egin diote

i.B.

Apokaliftin Kultur Elkarteak *Putz* aldizkariaren 23. zenbakia atera du. Laster lau urte beteko ditu aldizkari horrek, eta dagoeneko salgai dago uda osteko zenbakia. Gainera, ohi baino orrialde gehiago ditu oraingo zenbakiak. Badu zer irakurri, jakina.

Apokaliftin Kultur Elkarteak opor ostetik indarberrituta etorri da, eta *Putz* aldizkariaren 23. zenbakia aurkeztu berri du. Azal artistiko samarra ipini diote zenbaki horri; izan ere, elkarrizketa nagusiarekin bat doa. Hain zuzen, elkarrizketa nagusia Kirmen Uribe idazle eta poetari egin diote. Kirmenek *Bitartean heldu eskutik* ikuskizuna azkeneko aldiz Arrasateko gaztetxean egin zuen. Ikuskizun hartan Kirmenen lagun batek margolan bat egin zuen, eta margolana apurtu aurretik, *Putz* aldizkariarekin argazkia atera zioten. Eta, hain zuzen, argazki hori ipini dute azalean.

'MEGAZAKILAK', 'POPARI'...

Esandako moduan, Kirmen Uribe idazleari elkarrizketa zabala egin diote, oso modu orijinalan,

gainera. Kirmenek, bere poemetak berrogeita hamahiru berbatan oinarrituta, bat-batean berba horien gaineko zerbait kontatu zuen. Hala egin dute elkarrizketa; oso luzea da, eta Kirmenek inspirazio handiko erantzunak eman ditu.

Bestalde, *Megazakilak eta kapitalismoa* izeneko tesia ere argitara ekarri dute. Zakil handia edukitzeak eragin ditzakeen zailtasunak gogora ekarri dituzte.

Popari izeneko ipuin barregarria ere aurki dezakegu. Gertuko lagun edo senitarteko batek gustuko ez dugun opari bat egiten digunean, opari horri *Popari* deitzen diogu, inolako grazia-rik egiten ez digulako.

Musika kontuek ere bere lekua dute: batetik, Paddy Rekaldek Joe Strummer -The Clash taldeko abeslari zena- musikariaren omenez lerro batzuk idatzi ditu; eta bestetik, *Putz*-eko bi kidek udan Euskal Herrian izan diren bi musika jaialdiren -Bilbao Action Rock eta Azkena Rock-kronika egin dute.

Era berean, aldizkari horren arduradunek orrialde horietako kolaboratzaile Enrike Letona gogora ekarri dute. Horrekin batera, Espainiako epaileek Letona-

ri egin diotena salatu dute. Hainbat komiki ere argitaratu dituzte. Adur Larreak egungo egoera politikoaren gaineko bi komiki egin ditu, eta horiek aurkituko dituzue *Putz*-en.

Euskal idazleek ere beti izaten dute euren lekua aldizkarian; honakoan, Apokaliftin Kultur Elkarteak *Euskal idazleen tropela* egiten ahalegindu da, Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldearen laguntzarekin.

Eta ohiko kolaboratzaileek ere idatzi dute: besteak beste, J.A.Rocak, Halimma Mailukitzak eta Zorionek.

Kale inkestan, bestalde, honako galdera egin dute: *Egin al duzu inoiz bertsotan larrua jo bitartean?* Erantzunak era askotakoak izan dira eta pertsonaiak, gehienak ohikoak.

Aldizkariaren edukiak kontuan hartuta, umorerik ez da falta *Putz* aldizkariaren 23. zenbakian.

Bestalde, dagoeneko hasi dira prestatzen Durangoko Azokan aurkeztuko dituzten lanak. Ez digute ezer aurreratu gura izan, baina aurten ere ezustekoak egongo direla aditzera eman digute. Hortaz, zer kaleratzen duten adi egon beharko dugu!



utz eta zurrut, biak batera baietz!

Bihilebetekaria > 2003ko urria-azaroa > 3€

Elkarrizketa:

Kirmen Uribe

Literatur Lanak:

Megazakilak eta kapitalismoa

Popari

Maiarak gaueko pizpena

Azuldura 26 elean

Tarturari

1003 dokumentu kotakortala

Joe Strummer

Txistoa:

Kale inkesta

Egin al duzu inoiz bertsotan larrua jo bitartean?

Plagioaren aldeko manifestua

Tropela

BAR+Azkena kontzertuak

Komikiak

Alfonso Uzkiea
Spanish Democracy

Literatur kritika

Art-Zart



ARRASATE PRESS

Poesiaz eta hausnarketaz beteta dator *Putz* aldizkariaren 23. zenbakia.



Uarkape 2, behea. ARRASATE. Tel.: 943 77 20 87

irudisport@telefonica.net

Ordutegia: 07:30 - 22:00

Solarium zerbitzua ere badugu

Ondo pasatu eta gainera ikasi egin nahi baduzu, badakizu zer egin:

FUNKA ETA

HIP-HOPA

DANTZATU!!!

PROBA EZAZU, DOAN, AZARORA ARTE.



Hazi egin gara, orain ekintza gehiago, ordu gehiago...

- BODY-PUMP

- SPINNING-A

- BODY-COMBAT

- TORIFIKAZIOA

- BODY-BALANCE

- FUNKA

- AEROBIKA - STEP

- HIP-HOPA

EUSKARA/ Herritarrari egiten zaion hizkuntza eskaintza neurtu dute Arrasaten

Euskaraz dagoen eskaintza eta euskararen ezagutza parekatuta daude Arrasaten

UBANE MADERA

Euskararen ezagutza %56koa da herrian; eta euskararen eskaintza beste horrenbeste-koa. Hala erakusten du Euskaini adierazleak. Herri baten euskarazko eskaintza zenbatekoa den neurtzen duen adierazlea da Euskaini. Hainbat sektoretako eskaintza aztertu dute.


Administrazioa (Udala, justizia administrazioa...); ekonomia (enpresak, komertzioak, zerbitzuak eta publizitatea); gizartea (kirol, kultura, aisialdi... elkarteak, sindikatuak...); komunikabideak; osasuna eta hezkuntza. Horiexek dira aztertu dituzten sektoreak. Eta ondorioztatzen diren emaitzak honakoak dira: bat datozela euskarazko eskaintza eta ezagutza (%56); baina alde handia dagoela sektoretik sektorerara. Datuen arabera, administrazioan, hezkuntzan eta gizartean dago euskarazko eskaintzarik handiena. Hain zuzen ere, Arrasateko Udalak, Debagoieneko Mankomunitatearekin batera eta Hezkuntza Arautuak dute Euskaini

mailarik handiena. Ekonomia eta osasuna, berriz, gutxigatik ez dira iristen herriko ezagutza mailara; eta komunikabideetan dagoen eskaintza da txikiena. Bereziki, aldizkarietan.

ZER DA EUSKAINI?

Lehen aipatutako moduan, hori guztiori neurtzeko Euskaini izeneko adierazlea erabili du Arrasateko Udalak. Herritarrei egiten zaion euskarazko eskaintza zenbatekoa den laburtzen du kopuru zehatzetan Euskaini adierazleak. Hau da, zelan dauden erakunde, saltoki edo anbulatorioko errotulazioak, erakunde batera jotzen dugunean hangoek euskaraz erantzuten diguten edo ez, edo anbulatorioko errezetan orria euskaraz dagoen edo ez... hori guztiori aztertzen du Euskainik. Izan ere, herritarrari egiten zaion hizkuntza eskaintzak mugatzen du herritarren hizkuntza aukera. Eskaintzarik ezean, euskaldunak ezin dezake euskara erabili.

Kataluinan sortutako Ofercat tresnaren oinarritzko ezaugarriak gorde eta hainbat egokitzapen egin da sortu dute Euskaini indizea.



Besteak beste, Arrasateko Udalak eta haren zerbitzuek dute euskaraz eskaintza handiena.

GORRIA MORRAS

'La pelota vasca' filma lau egunean emango dute Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN

Azaroan aurreko hilabeteetan baino film gehiago ikusi ahal izango ditugu. Eguneetako zineklubaz gain, azaroaren 1ean, 2an eta 3an *La pelota vasca* filma emango dute Amaia Udal Antzokian.

Udaleko Kultura Sailak azaroko eguneetako zineklub programa aditzera eman du. Lau film emango dituzte: *La pelota vasca*, *Pi*, *Bowling for Colombine* eta *Made in Hollywood*, hain zuzen ere.

Horrez gain, nabarmendu beharra dago eguneetako zineklubaz gain, datorren zapatuan, domekan eta astelehenean ere filmak emango dituztela Amaia Udal Antzokian. Julio Medem zuzendariak eginiko *La pelota vasca* filma lau egunean ikusi ahal izango da. Film horrek zeresan handia eman du eta Kultura Sailak horren aldeko apustua egin du.

La pelota vasca dokumental generoko filma da. Euskal gatazkaren gainean berba egiten du, eta 70 laguni egindako elkarrizketetan oinarritzen da. Julio Medemek Euskal Herrian bizi diren lagun askori eskatu die euren bizipenak kontatzeko eta euskal gatazkaren gainean uste

dutena kontatzeko. Testimonio batzuek zirrara sortuko dute, eta mota askotako iritziak daude. Kazetari eta pertsona publiko batzuek kanpaina handia egin dute film horren aurka, eta paradoxikoki horrek promozio handia egin dio filmari berari. Arrasatearrek ere berau ikusteko aukera izango dute.

BESTE MOTA BATEKO FILMAK

Egunean, azaroaren 6an, zineklubean, *La pelota vasca* filma emango dute. Azaroaren 13an, *Pi* filma ikusi ahal izango dugu. Darren Aronofsky zuzendari estatubatuarrek egin zuen, 1998an. New Yorkeko Chinatownen bizi den matematiko batek uste du dena azal daitekeela zenbakien bidez, eta horrek sortzen dizkio aluzinazioak eta paranoiak. *Pi* zenbakia deszifratzen ahalegin-


tzeko, informatika sistema konplexu bat sortu du bere apartamentuan.

Azaroaren 20ean, *Bowling for Colombine* filma emango dute. Michael Moore zuzendari estatubatuarrek egin zuen, iaz. Dokumental horrek erakusten du AEBetako indarkeria eta beldurraren patologia. Zuzendariak arazo hori bere horretan agertu du eta polemika handia sortu du. AEBak dira, munduan, suzko armaz hilketa indize handien dutenak. Are gehiago, boto emaile eta teleikusle baino arma gehiago daude. AEBetako eskumako alderdiek diote indize horren erantzuleak direla Hollywood, rock-and-rola eta Internet. Film horrek mahai-inguru baterako gai aproposa eskaintzen du.

Azaroaren 27an, *Made in Hollywood* filma emango dute. Woody Allen zuzendari estatubatuar eza-gunak egin zuen, iaz. Val Waxman zinema zuzendaria da eta birritan lortu du Oscarra, baina neurotikoa bilakatu da eta lehorrera itzultzeko irrikan dago. Zinema zuzendariak hainbat pasarte bizi behar izango ditu.

Zinekluba betiko egunetan, orduan eta lekuan egingo dute: eguenero, Amaia Udal Antzokian, 21:30ean, hain zuzen ere.

*Hilero bezala,
eguenero ezohiko
filmak ikusi ahal
izango ditugu
herriko antzokian*



La pelota vasca filmak zeresan handia eman du, eta horrek promozionatu egin du.

E.TXO!

GUREGAIK/ GAZTEENDAKO IKASTAROK

Arratiako dantzak, irrati esataritza eta antzerkia ikasteko eskolak

IKER BARANDIARAN

Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu azarotik urtarrilera bitartean. Hala, herriko hainbat elkarte antolatu dituzten ikastaro mordoak ikusita, neguan ez da aspertzeko astirik egongo.

Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu negu hotzari aurre egiteko. Azaroaren 7tik abenduaren 19ra bitartean, egubakoitzero, Arratiako jotak (euskar dantzak) ikasteko aukera egongo da. Gazte Sailak antolatu du ikastaroa, Lore Gazteak taldearekin lankidetzan. Eskolak 19:00etatik 20:30era izango dira, eta matrikula bederatziz euro kostatzen da.

IRRATI ESATARITZA ARRASATE IRRATIAN
Urtero moduan, irrati esataritza ikastaroa antolatu dute. Azaroaren 8tik abenduaren 20a bitartean, zapaturo, Arrasate Irratiaren egoitzan eskolak emango dituzte. 11:00etatik 13:30era izango dira, eta matrikula 30 euro kostatzen da; ikasleek eta langabeek, berriz, 15 euro ordaindu behar dituzte.

Era berean, beste ikastaro bat ere antolatu dute: antzerki mugimenduarena, hain zuzen ere. Arratiako jotan ikastaroa bezala,



ALEX AZKARATE

Herriko gazte askok ikasi dute irrati esataritza Arrasate Irratiaren egoitzan.

honako hau ere lehenengo aldiz antolatu dute herrian. Olatz Pagaldai eskoriatzarrak eta Jon Zubiaga arrasatearrak, biak hala biak aktoreak, emango dute ikastaroa. Azaroaren 17tik urtarrilaren 26ra bitartean, astelehenero izango da. Gazteluondoko ikastolako aretoan egingo dituzte saioak, 18:30etik 20:30era.

TXATXILIPURDIKO IKASTAROK

Txatxilipurdik ere hainbat ikastaro antolatu ditu. Grafiti eta judo ikastaroetako taldeak beteta daude, eta hip-hop dantzen ikastaroa dagoeneko bukatu da. Txatxilipurdiko arduradunak oso pozik daude izan duten harrerarekin.

Horiez gain, beste ikastaro konbinatu bat antolatu dute. Aza-

roaren 8an, 15ean eta 22an, hurrenez hurren, honako ikastaroak emango dituzte Erguingo gazte txokoa: henna-tatuajea, automakillajea eta ile apainketa, hain zuzen ere. Eskolak 10:00etatik 13:30era emango dituzte, eta 12 eta 18 urte bitarteko gazteek eman ahal izango dute izena, azaroaren 4a aurretik, hain zuzen ere.

GUREGAIK/ CAPOEIRA ESKOLAK

Capoeira erakustaldia eta ikastaroa antolatu dituzte gaztetxean

I.B.

Bihar, zapatua, Arrasateko gazte batzarrak (AGAKO) capoeira erakusteta antolatu du gaztetxean. Horrez gain, borroka-arteak eta dantza uztartzen dituen joko horren ikastaroa antolatu dute.

Bihar, zapatua, hitzordu berezia duzue gaztetxean. Izan ere, Bornay brasildarrak eta beste lagun batzuek capoeira erakusteta egingo dute, 19:00etan.

Capoeira Afrika erdialdeko esklaboek Brasilen sortutako borroka-joko mestizoa da. Borroka-arteak eta afrikarren antzinako erritualak uztartzen ditu. Zelanbait, dantza horrek irudikatzen du esklaboek askatasunagatik egiten zuten borroka.


Capoeirako adituek diotenez, dantzaren, borrokaren eta akro-

baziaren nahasketa da, eta horrek norbanakoaren konfiantza eta oreka indartzeaz gain, indarra, bizitasuna, malgutasuna eta koordinazioa lantzen laguntzen du.

IZENEMATEA ZABALIK

Lehenik, antolatzaileek erakustaldia antolatu dute. Gura duenak gaztetxera joan eta capoeira zer den ikusi ahal izango du. Eta norbaitek capoeira ikasteko interesa agertzen badu, aukera izango du ikastaroan parte hartzeko. Martitzenean, azaroaren 4an, hasiko da eta martitzenetan eta eguenean egingo dute, 19:30etik 21:00etara, gaztetxean.

Interesatuak lehenbailehen telefono zembaki honetara deitu beharko dute: 635 73 90 08. Irakaslea Salvador de Bahiako (Brasil) Bornay izango da. Orain dela urtebete, Bornayk San Viatorren eman zituen capoeira eskolak.



ARRASATE PRESS

Bornay brasildarrak emango ditu capoeira eskolak.

TXATXILIPURDIKO ANTZERKI TAILERRA OSATU GURA DUTE

Txatxilipurdik Txatxiaristik antzerki tailerra osatu gura du. Horretarako, 9 eta 10 urte arteko gaztetxoei dei egin die. Txatxilipurdiko arduradunek hala diote: "Lagun berriak egin gura badituzu eta sen artistikoa garatu gura baduzu, izena eman eta parte hartu Txatxiaristik taldean". Entseguak eguenean egingo dituzte. AEDko txokoa izango dira, 18:30etik 20:00etara.

TXIKILANDIA PARKERAKO BEGIRALE DEIALDIA

Txatxilipurdi elkarteak Gabonetako Txikilandia parkean begirale izateko izenemate epea zabaldu du. Txikilandia Musakolako kiroldegian antolatu dute 2004ko urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean. Hala, Txikilandian begirale izan gura duenak Txatxilipurdira jo behar du, eta zera eraman: Naren fotokopia eta argazki bat. Informazio zabalagoa honako telefonon: 943 79 54 46.

LUDOTEKA IBILTARIA SAN ANDRES AUZOAN

Azaroko zapatuetan (8an, 15ean, 22an eta 29an) Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria eramango du San Andres auzora. 3 eta 12 urte bitarteko umeek 11:00etatik 13:30era izango dute hitzordua Bedoñabe eraikinean. Jolas egiteko aukera polita izango dute.

GAZTE BATZARREKO HIRU KIDEK, EPAIKETA

Azaroaren 12an gazte batzarreko hiru kidek epaiketa izango dute Bergarako epaitegian, Arrasateko alde zaharrean kartelak ipintzeagatik. Epaiketa 10:15ean izango da. Gazteak haserre daude eta euren kexua aditzera eman dute.

HIP-HOP JAIA ANTOLATU DUTE GAZTETXEAN

Azaroaren 8an, zapatuan, hip-hop jaia antolatu dute gaztetxean. 16:00etan, grafitiak egiten hasiko dira. 18:30ean, *breakdance* erakustaldia egingo dute. 22:00etan, Texas (AEB) disko-jartzaile batek *scratch* egiten erakutsiko du. 23:00etan, Voz Armada taldeak kontzertua egingo du. Eta horren ostean, hiru disko-jartzailek musika jarriko dute: DJ Kaiet, DJ Balza eta DJ Enekok. Sarrera lau euro kostatzen da.

BEHEKO INMOBILIARIATIK

Jesus Markaide Sanpedro

DEBA GARAIA INMOBILIARIA

XABIER URZELAI

Jesus Markaidek inbiliarixa jabetzako artekari moduen egitten dau lan. Bere lana ez da etxebizitzak beste barik saltzie; horreik salerosketok seguruek izen daittezen arduratu biher da. Etxebizitzen preziuen gorakadie arazo izugarrixe dala uste dau, eta ez dau ulerketan jende asko zela egitten dauen lo trankil.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Itsasgizon.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Etxien akabau egingo nindudkie.

Drogak legalizauko zeuke?

Batzuk legalizaute dauz. Esaten daue droga bigunek legalizaute egon biherko leukiela; gaiñera, medizinarako onak diela.

Eta prostituziñue?

Drogak baiño lehenau legalizauko neuke prostituziñue.

Ibarretxe Plana: ze pentsetan jatzu?

Herrixe batzeko bada ondo dauela. Oin, herrixe banatu egitten badau ez dau ezertarako balixo.

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Salvar al soldado Ryan / Los pilares de la tierra / Chicos Boom esango dot; neuri ez jat askorik gusetan, baiñe semiek talde horretan joten dau...

Bizio bat?

Ardauek kalte egitten dust, baiñe afaitteko ardau apur bat...

Etxeko lan gorrotagarrixe-na?

Ohiek egittie.

Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeinekin?

Sharon Stonekin.


Ze irakurriko zeuke gustora

ARRASATE PRESSen?

Mondragueko sozialistek batzarrak euskeraz egitten dittuela.

Etxien preziuek: badau tope-rik?

Bai, euki biherko leuke, behintzet. 1999tik aurrera sekulako igoerie egon da, eta horrek bukaerie euki biher dau. Hala eta be, seku-



X.U.

*"Eskubide bat
negozio bihurtu
dogu; eta gobernuen
dauzen askok trankil
egitten daue lo"*

la ez neuke esango gaur egungo egoerara aillegauko gizenik. Dana dala, jentie ez danien kapaz horreik prezixuok pagetako, ezingo daue gora egin.

Zein aberasten da egungo etxien preziuekin?

Etxiek daukienak geruau eta aberatsauek die eta ez daukienak geruau eta baltzau daukie etorkizune; injustizia haundixe da.

Tabernarixek esaten daue jentiek geruau eta gutxiu urteten dauela.

Ohitturak aldatu egitten die, baiñe egixe da etxie pagetan diru mórdue gastau ezkeró gauza asko zaindu egin biher diela.

Etxie eskubide izetetik nego-

*"Egungo gaztiek
sekulako arazue
daukie eta ez daue
protestarik egitten;
nora begire dauz ba?"*

zio izetere pasau da.

Hori da hanka-sartze haundixenetako bat. Etxien salerosketek interes ekonomikue euki daue beti; baiñe interes ekonomikuek pertsonen eskubidien gaiñetik dauzenien, txarto gabitz. 23 urteko gaztiek ezin badaue etxetik urten, ez gabitz ondo; ez gara gizarte aurreratue. Frantzian, Paueko etxiek hamenguen erdixe balixo daue. Lege barrixekin be ez daue asmaetan: neure ustez, Babes Ofizialeko Etxebizitzek ez daue ezer konponketan. Hamar urtien ezin die saldu; eta ze gaztek dauko estabildade hori? Egungo bikotiek ze estabildade daukie? Zerbait pasau ezkeró zenbat diru galduko daue?

NIRE BIDAIAHURA/ Iban Toledo

Senegal / 2003ko abuztuan


Joan den astean Senegalera ino eraman gintuen Ibanek. Ez zuen iparraldea ezagutzeko aukerarik izan, baina hegoaldean izan zuen zer ikusi. Senegalgo hego-ekialdeko inguruak gustatu zitzaizkion Ibani: "Senegalera berriro joango banintz, hara joango nintzateke; zuzenean, gainera".

Senegalgo hego-ekialdean, Casamancen, gerrillak daude, lurralde horren independentziaren alde borrokan dabilzanak: "Casamance da Senegalgo inguru politena. Baso ikusgarriak daude han, eta oso paraje polita da. Hori bai, errepideak ez dira batere onak, eta Senegalgo polizien kontrolak non-nahi daude, gerrillak kontrolatu guran". Polizien kontrolatan, baina, ez zuen arazorik izan: "Badakite guk dirua daukagula, eta gu oztopatzea euren interesen kontra doa. Ni autoan nindoan, baina turistekin zihoazen autobusak geratu ere ez zituzten egiten".

Casamancen zegoela, hango bizilagunek Euskal Herria ezagutzen zutela konturatu zen: "Casamanceko bizilagunek alderatu egiten zuten Euskal Herriak Espainiarekin duen arazoa eta Casamancek Senegalekin duena". Casamancen hainbat triburekin egoteko aukera izan zuen; ikusgarriena Basari tribua da, baina Iban ezin izan zen haraino joan: "Euriteen garaian joan nintzen, eta sekulako lokatz mórdoa zegoen; ezin izan nintzen Basari tribua zegoen lekuraino joan".

Iban Toledoren esanetan, Senegalera joan gura duenak beharrezkoa du pazientzia izatea: "Hango askorendako diru-poltsa baino ez gara, eta frantsesez berba egiten jakin eta konfiantzadun gidaria hartzea gomendatuko nuke. Nik boligrafoak eta koadernoak eraman nituen hango gazteen artean banatzeko. Dirua ematea ez dut gustuko; konturatzen dira eskatzen ibilita lan eginda baino diru gehiago irabazten dutela, baina dirua eskatuz ez da herri bat bera bakarrik aurrera ateratzen; nik hori uste dut, behintzat".

XABIER URZELAI



Herriarrei erretratua eginez gero, askotan haserretu egiten ziren.

Herrialde berriak
bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK

Uribarriko elkartetik Kataidera ibilaldia



Hotza egiten zuen arren, erretiratu talde polita elkartu zen ibilaldia egiteko.



Bospasei kilometroko paseoak egiten dituzte.

IKER BARANDIARAN

Uribarriko elkarteko erretiratuak oso ausartak dira, eta batzuetan eguraldi txarra izaten duten arren, iragarritako ibilbideak beti egiten dituzte. Joan den egunean, urriaren 23an, esaterako, Kataidera ibilbidea antolatu zuten. Goizean euria egin zuen barra-barra eta oso giro hotza zegoen, baina ez zuten atzera egin. 18:00etan, elkartearen kanpoan hogeita hiru lagun elkartu ziren, guztiak berokiak jantzita eta aterkia eskuan. Beroketa ariketak

egin barik, Gernika Oinezkoen Zumarditik abiatu eta erritmo azkarrean aurrera egin zuten. Zorionez, ibilbide osoan eguzkia izan zuten lagun. Monterron parkea zeharkatu eta handik Musakolara, Eroski parera, heldu ziren. Han, egin berri duten zubi azpitik pasatu ziren, eta zelanbait zubia inauguratu egin zuten. Kataide industria-gunera heldu ziren, eta hantxe, atsedean laburra egin ondoren, buelta eman zuten.

Uribarriko elkartera bide beretik joan ziren, eta 18:00ak aldera bueltan ziren. Elkartera,

berotara, sartu eta han, askari ederra gertu zeukaten: freskagarria, urdaiazpiko ogitartekoa eta kafe beroa, hain zuzen ere. Indarrak berreskuratzeko ordain proposa.

BOSPASEI KILOMETROKO PASEOAK

Uribarriko elkarteak lau ibilaldi antolatu ditu 2003an: lehenengoa Garagartzara egin zuten; bigarrena, Eroski ingurura; hirugarrenean Aretxabaletara joateko asmoa zuten, baina uztailean izugarritzko beroa egin zuen, eta azkenean Santa Barbarara jo zuten, gerizpe bila.

Laugarrena urriaren 23an egin zutena da, hots, Kataideko industriagunera joan zirenekoa. Azaroaren 25ean, berriz, Garagartza aldera joateko asmoa daukate. Ziurrenik, hori izango da aurten egingo duten azkeneko ibilbidea.

Ekimen horietan Uribarriko elkarteko gizonetzko eta emakumezko askok hartzen dute parte. Ezagun da, gainera, paseatzeak osasunari onura handia egiten diola. Antolatzaileek, ibilbideak aukeratzekoan, bospasei kilometroko paseoak gertatzen dituzte, eta ahalegintzen dira aldapa

gutxiko ibilbideak egiten. Horretarako, oso aproposa da Gernika Oinezkoen Zumardia. Erretiratuek behin eta berriz azpimarratu dute zumardi horrek mesede handia egin diela. Izan ere, luze pasea daitezke, errepide ondoan ibili barik eta ibilgailuen arrisku barik.

BARRURAKO EKINTZAK

Dena dela, dagoeneko eguraldia kaskartu da eta hotza ere egiten du. Horregatik, azarorako eta abendurako hainbat berbaldi antolatu dituzte. Horiek, jakina, elkartearen egingo dituzte.



Abaroa elkarteko emakume fin-finak

Abaroa elkarteak, herriko beste erretiratuen elkarteek moduan, urtean ekintza asko antolatzen ditu. Eskaintza hori elkarte horietako batzurrei zor diegu, jakina.

Elkarteetako batzar horietan, emakumezko eta gizonetzko askok, egunero-egunero eta isil-isilik, inurri lana egiten dute.

Urriaren 3an, Maritxu Kajoi egunean, elkarteak Abaroako bazkideei askaria eskaini zien. Argazkian agertzen diren Mari Segura, Karmen Villar eta Begoña Azantza arduratu ziren sukaldeko lanaz. Hirukoteak era askotako lanak egiten ditu, eta batzarrak hori eskertu die. /I.B.

LABUR

Nagusilan elkarteak egoitza inauguratuko du

Datorren egunean, azaroaren 6an, Nagusilan elkarteak egoitza inauguratuko du Arrasaten. Nagusilan elkarteak hirugarren adineko laguntza ematen die, boluntarioen bitartez.

Elkarteak sei hilabete egin ditu eta dagoeneko hamazazpi boluntario ditu.

Azaroaren 6an, Iturbide egoitzan Jose Mari Soroa musikariaren kontzertua antolatu dute. Emanaldia 17:00etan izango da. Horren ostean, 19:00etan, egoitza inauguratuko dute. Helbide honetan dago egoitza: Arrasate pasealekua 3, behea.



ARRASATE
Beñat Jimenez
Urriaren 31n, 1 urte. Zorionak! Aitaxo eta amatxo.



ARRASATE
Elena Fernandez
Urriaren 30ean, 1 urte. Zorionak! Etxekoekin partetik.



ARRASATE
Leire Berezibar
Urriaren 31n, 10 urte. Zorionak! Familiakoekin eta lagunenen partetik.



ARRASATE
Xabier Petreñas
Urriaren 29an, 5 urte. Zorionak! Familiakoekin eta lagunenen partetik.



ARRASATE
Nagore Etxebarria
Urriaren 31n, 7 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Saioa Errasti
Azaroaren 1ean, 8 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.




ARRASATE
Eneritz Badiola
Azaroaren 3an, 11 urte. Zorionak! Muxu handi bat, Leirenen eta etxekoekin partetik.



ARRASATE
Lola Lopez
Azaroaren 3an, urtebetetzea. Zorionak! Arkaitz, Belen eta Unai.




ARRASATE
Patricia Martinez
Azaroaren 2an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoekin partetik.



ARRASATE
David Mañanes
Urriaren 31n, urtebetetzea. Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Uxue Lopez de Briñas
Azaroaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak! Gogoratu txipiari zain dituzula.



ARRASATE
Garikoitz Urrutia
Urriaren 30ean, 2 urte. Zorionak! Gurasoen eta anaiaren partetik.



ARRASATE
Asier Gonzalez
Urriaren 29an, 6 urte. Zorionak! Amama Pakitaren eta Mikelen partetik.



ARRASATE
Josune Etxagibel
Urriaren 24an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoekin partetik.



ARRASATE
Julene Iturbe
Urriaren 31n, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoekin partetik.



ARRASATE
Mikel Otxandiano
Azaroaren 3an, 8 urte. Zorionak! Etxekoekin partetik.



ARRASATE
Nebai Moreno
Urriaren 26an, 17 urte. Zorionak! Etxekoekin partetik.



ARRASATE
Ainhoa Zabaleta
Azaroaren 4an, 18 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Jose Angel Iborra
Urriaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak! Iban, Ikeia, Danel eta Oihana.

Adi! Argazkiak emateko lekua: **Arrasate:**
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehenez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSEn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



Non dago argazkian ikusten duzuen sarraila mordoxka hori?
Arrastoa: iazko ekainean inauguratu zuten leku hori.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Pepsi Cola
8 lata x 33l

2,19€ 364 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AINHOA BELATEGIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ainhoa!
Galderen erantzun zuzena:
1945ean. Oharra: joan zen asteko erantzuna San Franzisko Xabier ikastola zen.

ARRASATEKO HISTORIA

Maisu Aranbarri izeneko plazaren gainekoa

'MONDRAGON SÚS CALLES', J. LETONA

Jesus Aranbarri musikariaren omenez ipini zioten izena Musakolako plazari

Besteak beste, Bilboko Udal Orkestra sortu zuen, Estatuko mota horretako lehena

San Andrestik Musakolara egingo dugu oraingo honetan, herriko beste leku bat ezagutzeko asmoarekin: Maisu Aranbarri plaza. Hain zuzen ere, Elkano, Antxo Abarka, Oñati eta Errando Gebarako kaleen erdian dago. Jesus Aranbarri eta Garate izeneko musikariaren omenez ipini zioten plaza horri izena.

Jesus Aranbarri Bilbon jaio zen 1902an eta Madrilen hil zen 1960an. Musikaria eta konpositorea izan zen. Besteak beste, Guridi, Fuster eta Sainz Basabe maisuekin egin zituen organo eta konposizio ikasketak Bilbon. Parisen ere ibili zen, Paul le Flem eta Paul Dukas musikariek. Baita Basilean ere.

1933an Bilboko Udal Bandako zuzendari izateko oposizioa atera zuen, eta egindako lan bikaina ikusita, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari izendatu zuten.

1939an Bilboko Udal Orkestra sortu zuen (Estatuan mota horretako lehena), eta Estatuko hiriburu garrantzitsuetan eman zituen kontzertuak. 1953an Madrilgo Udal Bandaren

zuzendari izendatu zuten. Besteak beste, San Fermendoko eta Madrilgo Arte Ederretako Errege Akademiako kide eta Alfontso X.a Jakintsua Ordenako komendadore izan zen.

Sasoiko zuzendari garrantzitsuenetakoa izan zen, eta leku askotara gonbidatzen zuten zuzendari lanak egin zituan. Konpositore moduan egin zituen lan sinfonikoen artean, Manuel



SERGIO AZKARATE

Lau kaleren erdialdean dago Maisu Aranbarri izeneko plaza, Musakola auzoan.

Machadoren poema baten oinarritutako kantuak eta *Gabon zar sorginak* (zortzi euskal kantu) izenekoak arrakasta handia izan zuten Estatuan eta kanpoan. Antzerkirako,

berri, *Viento sur* izeneko lana egin zuen. Hain justu ere, Maisu Aranbarri pare baten egon zen Arrasaten: behin, *Viento sur* lana interpretatu zutenean (1959, Gurea zinema); eta bigarrenez,

Arrasateren Hiri Gutunaren zazpigarren mendeurrena (1960) ospatzeko *Mirentxu* lana antzeztu zutenean, Ideal zinema. Guridi maisua ere hementxe izan zen egun hartan.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko urriaren 31 / 83. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Makina bat gai landu eta onartu zituzten bilkuran

UBANE MADERA

2004rako Foru Plana, ur-kontsumoaren gaineko zerga, herritar homosexualen gaineko mozioa eta Arangoiti ikastolari laguntza ematea onartu zituzten, besteak beste, bilkuran.

Eguazteneko batzar horretan makina bat gai zeuden zerrendan lantzeko. Haien artean 2004rako Foru Plana ere bazegoen. Bi urtean behin egiten duten ekimena da hori. Herrian egin beharreko lan batzuen berri ematen dio udal bakoitzak Diputazioari, erakunde horrek lagun diezaion.

Aurtengo deialdirako honako zerrenda hau onartu zuen udalbatzarrak (garrantziaren arabera daude zerrendatuta): Arexolan kaleak zolatzeko aurreproiektua; Bentamotz kaleko ur-sarearen zati bat berritzeko aurreproiektua; Arriolan kaleko azpiegiturak berritzeko aurreproiektua; Errotabarri eta Salgo auzoetan kaleko azpiegiturak berritzeko aurreproiektua; Untzillako ur-sarearen zati bat berritzeko aurreproiektua eta Muru auzora joateko kalea zabaltzea; Zabolan goiko aldean dauden baserrietako ur-sarea berritzeko aurreproiektua eta argiteriaren

egoera aztertzea. Plan beraren barruan, oletarrek auzoko plaza urbanizatzeko proiektua aurkeztu dute.

Orain, eskaera guztiak esku artean izanda, Diputazioak banan-banan aztertuko ditu, eta diruz lagundu edo ez erabaki beharko du.

Bestelako gaien artean, larregiko ur-kontsumoa zigortzeko zerga ipintzea onartu zuen udalbatzarrak, baina hori zelan aurre-

ra eraman zehaztea falta zaie.

Bestalde, Aramaioko zenbait familia ugarik honako eskaera aurkeztu zioten Udalari: ondusun higiezinaren gaineko zergan hobariren bat izatea. Zinegotziek baiezkoa eman zioten eskaerari. Edozelan ere, inguruko udaletan gai bera zelan lantzen duten aztertuko dute, eta horren arabera erabakiko dute zelan aurrera eraman Aramaion.

ARANGOITI IKASTOLARI LAGUNTZA

Orain dela pare bat asteko Nafarroa Oinez ere berbagai izan zuten zinegotziek. Onartu zuten Iruberriko Arangoiti ikastolari laguntzeko 625,25 euro ematea.

Eta, onartutako beste gaietako bat homosexualen gaineko mozioa izan zen.

Bukatzeko, esan beharra dago Hamalau taldeko zenbait kide osoko bilkuran izan zirela; eta jakinarazi digute aurrera begira pauso gehiago emateko asmoa dutela.

Era berean, esan beharra dago oraingo astean osoko bilkura berezia egin duela udalbatzarrak. Besteak beste zera aztertu zuen: udaletxeko lanak esleitzeko lehia-keta arautuko duen berariazko klausula ekonomiko administratiboaren plegua onartzea.

2004ko Foru Planaren barruan zortzi eskaera egin ditu Aramaioko Udalak

Arangoiti ikastolari dirulaguntza ematea onartu zuen udalbatzarrak osoko bilkuran



TXIRRIOLA

Oraingo astean eta hurrengoan ekimen bereziak egingo dituzte eskolakoek.

Umeak barnetegian eta bide hezkuntza ikasten

San Martin eskolako umeek eskolaz kanpoko ekimenak egingo dituzte oraingo astean eta hurrengoan. Hain zuzen ere, oraingo astean, eskolako bigarren eta hirugarren zikloetako 46 neska-mutiko eta lau irakasle Barriako barnetegian egon dira hiru egunez. Arabaz Blai programaren barruan antolatutako ekimena izan da, besteak beste, umeek Araba ezagut dezaten eta ingurumenarekin lotutako ekimenak egin

ditzaten. Iaz ere leku berean egon ziren.

Eta datorren astean bide heziketa landuko dute hirugarren ziklokoek. Hezitzaileak etorriko zaizkie, astelehenean bide hezkuntzaren arlo teorikoa lantzeraz (09:00etatik 15:00etara); eta martitzenean arlo praktikoa lantzeraz (10:00etatik 12:00etara). Iaz, bizikletak erabilia zirkuu bati bueltak ematen ibili ziren ikasitakoa praktikatzen.

Aramaiarrak bertsolari gazteendako lehiaketan

U.M.


Abian da 2004ko Bertsotan Bagare lehiaketa. 20 bertsolarik parte hartuko dute aurten, tartean, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa aramaiarrek. Hiru kanporaketa jokatu dituzte.

Aurreneko kanporaketa gaur, barikua, izango da, Araian, Zubigain jatetxean, 20:30ean. Manex Agirrek beste bost bertsolariren kontra jardun beharko du, eta kanporaketako lehenengo biak pasatuko dira finalera. Bigarren kanporaketa Amurrioren izango

da, baina, han ez da aramaiarrik izango. Eta hirugarrena Legutianon izango da, hango elkartearen, azaroaren 21ean, 20:30ean. Kasu horretan Andere Arriolabengoa beste zazpi lagunekin arituko da bertsotan. Eta kasu horretan ere, lehenengo biak pasatuko dira finalera.

Finala Gasteizen jokatu dute, azaroaren 27an, Beñat Etxepare antzokian, 20:00etan. Sei bertsolari ibiliko dira lehiaren nork txapela jantzi.

Bestalde, azaroaren 6an, Ahozko Inprobisazioa Munduan izango da Laudion; besteak beste, Manex Agirrek parte hartuko du.



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Datorren azaroaren 6an Laudion izango da Manex Agirre, bertso-saio berezian.

LABUR

Aramaioko EAJkoek Joseba Egibar gurago

Euzko Alderdi Jeltzaleko afiliatuak Euzkadi Buru Batzarreko ordezkaria nor izango den erabaki beharko dute. Dakizuenek, Xabier Arzalluz da oraingo ordezkaria, baina, hark kargua utzi behar du eta haren ordezkaria aukeratu beharko dute. Joseba Egibar eta Josu Jon Imaz dira kargurako hautagaiak. Bada, Aramaion EAJko afiliatuak dagoeneko egin dute aukeraketa, eta, hain zuzen ere, Joseba Egibar aukeratu dute Xabier Arzalluzen lekua hartzeko.

Zapatuko azokak jende asko erakarri zuen herrira, bai eta Erretiratuen Egunak ere

UM

Goizean goiz hasita sekulako giroa egon zen zapatuan Aramaion. Giroa eta jendetza. Eta ez eguraldiaren epeltasunarengatik, ez; jaiaren berotasunarengatik baizik.

Betiko moduan, baserritarren eta artisauen azokak erakarri zuen jende gehien. Baina baita Erretiratuen Egunak berak ere. Argazkietan ikusten duzue, parrokian lagun dezente elkartu zen urtean hildako erretiratuen aldeko mezan. Lagun Artean taldekoek fin-fin egin zuten haien omenezko dantza-saloia mezaren ostean. Gero, azoka ikusi, antzinako kontuak gogoratu eta kiroldegirantz egin zuten erretiratuek, bazkaltzera. 165 bat lagun elkartu ziren, iaz baino gehiago. Ondo bazkaldu eta gero erromerian ibili ziren. Eta Vital Kutzaren eta Euskadiko Kutxaren opariak eman zizkieten 12 laguni. Era berean, Ana Mari Jauregik (95 urte) eta Fidel Beitiak (91 urte) opari bereziak jaso zituzten, nagusienak izatearren.

Azokari dagokionez, handia izan zen; berritasunekin, gainera. Gozogintzarekin, tailarekin, eztingintzarekin... lotutako saltokiekin batera, errementaritzarekin lotutako erakusketa egon zen. Hortaz, gauzak erosteaz eta ikusteaz gain, ikasteko aukera ere egon zen.



Erretiratuen Egunean ohi denez, jende asko ibili zen kalean zapatuan.



Herritarrek ipini zituzten saltokiak; tartean, Itur Zuri elkartekoek.



Errementariak zelan lan egiten zuten erakutsi zuten Suoker taldekoek.



Erretiratu dezente elkartu zen mezan; gero, 165 lagunek bazkaldu zuten kiroldegian.



Lagun Artean dantza taldeak omenaldi beroa egin zien erretiratuei.

ARGAZKIAK: OLAIA MONDRAGON ETA ARANTZA IBABE.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaleteia	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ	GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
07:00	07:15	08:00		07:50	08:05
10:00*	10:15		08:15	09:00	09:15
11:00	11:15			10:15*	10:30
12:00*	12:15*	13:00		11:15	11:30
15:15	15:30	16:15	13:10	13:55	14:10
17:20	17:35		16:20	17:05	17:20
18:30*	18:45			17:35	17:50
20:30	20:45	21:25		18:45*	19:00
21:00*	21:15		19:30	20:10	20:25

OHARRAK

ASTE BUKAERAN ZINEMA

Oporraldiaren ostean, berriro ekingo diote domeketan filmak emateari. Hain zuzen ere, eta nahiz eta oraingo aste bukaera berezia den, domekan, hilaren 2an, *Esperando la navidad* filma emango dute; neguko zinemaren ordutegiari dagokion moduan, kultura etxean, 17:00etan.

HILERRIAK TXUKUN-TXUKUN

Bihar, zapatua, Domu Santu eguna izanda, hilerriek bestetan baino bisita dezente gehiago izango dituzte. Hori dela eta, guztia txukun-txukun egoteko Udaleko langileak lanean ibili dira, baita auzoetako hilerrietan ere. Hilerriguztiak zabalik egongo dira.

ERRETRATUZAHARRA

Zabartetarrak
San Esteban
egunean

Udala aldera egingo dugu oraingo honetan argazki zaharraren tartean. Argazkia atera zutenean uda sasoiaren, abuztua. Hain justu ere, San Esteban jaiaren ospakizunerako elkartu zen argazkiko taldea, abuztuaren 3an. Gure berriemaileen arabera, 1950a edo 1951 izan daiteke.

Kontatu digutenez, argazkian agertzen diren neska-mutikoak lehengusu-lehengusinak ziren, Zabartetarrak bigarren abizenez. Urtero elkartzen ziren Udalako jaietan, Ozeta baserrian. Han bizi ziren Bixente eta Leokadia aiton-amonak, eta haiek gustuko zuten San Esteban egunean seme-alaba eta iloba guztiak elkartu eta batera egotea. Seme-alabak eta gainerako senideak goizean goiz igotzen ziren Udalara eta gauera arte egoten ziren han, bazkaltzen, afaltzen... Nagusiak kartetan jokatzeko eta bien bitartean, ilobak Udalako pilotalekuan, pilotan jardun eta jardun. Baita aiton-amonen kortan ere, animaliekin jolasean eta baserrian eta



inguruan, txorro-morroka, sokasaltan... ibiltzen ziren.

Horrez gainera, gure berriemaileek kontatu digutenez, Angiozarko Itsua joaten zen Udala auzora soinuarekin jaiak animatzera; dantzaldia egiten zuten pilotalekuan, eta hantxe ibiltzen ziren gure lagunak, dantzan edo

jolasean, ahal zutena egiten.

Honako hauek agertzen dira argazkian, goian, ezkerretik eskumara: Pilar Zubillaga, Jose Luis Torres, J. Antonio Torres, Kontxita Otxoa eta Mariano Azkarate. Eta behean, ezkerretik eskumara honako hauek agertzen dira: Ignacio Lopez de Uralde,

M^a Carmen Zubillaga, Maribel Mendiburu, Jesus M^a Otxoa, Jose Luis Azkarate eta M^a Jesus Azkarate.

Argazkia: ARRASATE PRESS

Informazioa: Jose Luis Torres eta Jose Luis Azkarate

Urtea: 1950-51

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Roneoren
biltegia eta
aroztegia

Argazki zaharrean azaltzen den eraikina Roneo enpresaren biltegia eta aroztegia zen. Beste era batera esanda, egindako produktuen biltegia zen eraikin hura. Roneo enpresa Garibai etorbidean zegoenean, Musakolako biltegi-eramatzen zuten material guztia, eta handik, Roneok Espainian zituen delegazio guztietara banatzen zuten. Eraikina 1991-92an bota zuten.



≈ 1990 Garibai etorbidean zegoen lantegia bota eta Epeleko industria-eremuan eraiki zuten Roneoren lantegi berria.



2003 Roneoren biltegia zegoen lurretan, berriz, Maxi Eroski eraiki zuten. Urte batzuk geroago, egun ezagutzen dugun Hiper Eroski egin zuten.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

LAKET

Bonaventure
Diesel
Pepe
Levis

Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Tarifa pertsonezkoak

Zatoz gure bulegoetara eta informa zaitez

- Aseguruak
- Finantzaketa
- Renting
- Balio erantsien lantegiak



MAPFRE
AUTOMÓVILES

Mapfre
Errekabarren 3
943 77 11 76
ARETXABALETA

Mapfre
Garibai etorbidea 16
ARRASATE
943 79 89 00
Arrasate pasealekua 37
ARRASATE
943 79 71 31

Mapfre
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
BERGARA

Altube zerbitzuak-Mapfre
Portu 5
943 78 12 65
OÑATI



Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

Enplegu Zerbitzua ■

*EUSKO JAURLARITZAKKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAK
DIRUZ LAGUNDURIK ETA EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZIATURIK*

EMAKUMEENTZAKO SOLDADURA IKASTAROA

Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin, lanerako prestakuntzako ekintzen artean emakumeei zuzendutako soldadura ikastaro bat antolatzen ari da, ezaugarri hauekin:

IKASTAROAREN HELBURUA: soldadura arloan emakume talde bat trebatzea, lanpostu bat lortzeko helburuarekin.

NORENTZAT: emakume langabetuentzat.

EUROPAKO FONDO SOZIALAK ERE FINANTZIATUA



IKASLE KOPURUA: taldea gehienez 15 ikaslez osatuko da.

TOKIA: Olaburu Enplegu Zentroa, Zubillaga auzoa (Oñati)

ORDU KOPURUA: 400 orduko ikastaroa

ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 14:00etatik 18:00etara.

NOIZ: 2003ko azaroaren 17tik 2004ko apirilaren 30era arte.

DIRULAGUNTZA ZEINEK EMANA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

IZENEMATE EPEA: 2003ko azaroaren 7ra arte, Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzuan. Tel. 943 79 09 00.



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

CDTI Corsa berria Aitzakia ona beharko duzu gelditzeko



Orain, **50.000 km.**
zure CDTI Corsa berriarekin | erregaia doan.*

Badator Corsa berria, kanpoaldeko diseinu berriarekin eta Diesel Common Rail Turbo Injekziozko 1.3 CDTI 70 ZP eta 1.7 CDTI 100 ZP motor berrien potentziarekin. Eraman ezazu Corsa CDTI berria eta 50.000 kilometrorako erregaia opari egingo dizugu, sekula gera ez zaitezten.

*Eskaintza ez metagarria beste promozio batzuetarako. Hil bukaerara arteko promozioa Penintsulan eta Balear Uharteetan CDTI Corsa 04 urteko modeloan. Promozio bermatua 50.000 kilometrorako, 4,5etik 4,8rako kontsumo misto eta homologatuarekin eta 0,7 euro l/gasolioko batez besteko kostuarekin. CO₂ emisioa (g/Km) 122tik 130era.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10, ARRASATE

www.giauto.es